

ERANSKINA

2021-2022 IKASTURTEKO HEZKUNTZA JARDUERA PRESENTZIALA AURRERA ERAMATEKO PREBENTZIO ETA ANTOLAKUNTZA PROTOKOLOA

AURKIBIDEA:

0.- Sarrera.

1. Pandemiari egokitutako eskola-antolaketa

1.A Ikastetxeen antolakuntzari buruzko zenbait gogoeta orokor

1.B Egoeren sailkapena uneko osasun egoeraren arabera

1. egoera: sektoreen blokeatze indartua

2. egoera: ikastetxeak erabat ixtea

2. Ikasmaien eta arloen programazio didaktikoa

3. Hornidura teknologikoa

4. Gaitasun digitala indartzeko plana

5. Urruneko eskola-jarduerarako tutoretza plana eta ikasleen harrera-prozesua

6.- Antolakuntza- eta segurtasun-neurriak

6.0. Maskarak erabiltzea

6.1. Ikasleen sarrera-irteerak

6.2. Ikasgelen kudeaketa

6.3. Barneko joan-etorrien kudeaketa

6.4. Jolastokiaren eta jolasaldiaren kudeaketa

6.5. Komunen erabileraren kudeaketa

6.6. Garbiketa eta desinfekzioa

6.7. Jantokiak

6.8. Garraioa

6.9. Ikastetxeko pertsonen kudeaketa

6.10. Ikastetxeakoak ez diren pertsonen kudeaketa

6.11. COVID-19aren aurrean kalteberak diren pertsonen zuzendutako neurriak

6.12. Jokabidea COVID-19kasubaten aurrean

6.13 COVID-19rako erreferentzia diren pertsonen zertan lagunduko dioten zuzendaritza taldeari

6.14. Gorputz jarduerak eta eskulanak

6.15. Irakaskuntza espezifikoak eta enplegurako prestakuntza ikastetxe publikoetan

SARRERA

Osasun Kontseilariaren, ekainaren 29ko, 22/2021 Foru Aginduren 36.3 artikulua jasotzen dituen, Covid-19k sortutako egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitatean, ohiz kanpoko prebentzio-neurri espezifikoaren arabera “Hezkuntza Departamentuak prebentzio- eta antolakuntza-protokolo bat landuko du hezkuntza jarduera presentziala aurrera eramateko, eta bertan jasoko ditu ordura arte onartutako osasun-gomendioak. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak gainbegiratuko du protokolo hori”.

Jende asko txertatu da dagoeneko, eta 2020-2021 ikasturteko esperientzia ere badugu; baina birusaren aldaera berriak agertu direnez, eta ikasle guztiak ez daudenez txertatuak, ezin da aurreikusi zein izanen den 2021-2022 ikasturtearen garapena. Ondorioz, kontuan hartuta Gobernu Zentralaren eta autonomia-erkidegoen artean ezarritako esparru orokorra, ezinbestekoa da gerta daitezkeen osasun-egoera desberdinak aurreikustea eta horietara nola egokitu pentsatzea. Esparru-dokumentu horretan ezarritako jarraibideei jarraituz, jarduera-protokolo bat zehaztu da, aurreikusitako bost osasun-egoeretara egokitu daitekeena: normaltasun berria, eta 1etik 4ra bitarteko alerta-maila duten egoerak, 4.a izanik okerrena. Betiere, lehentasuna izanen dute premisa hauek: langileen nahiz ikasleen osasuna eta segurtasuna bermatzea; gurasoen familia- eta lan-bizitza, osasun-krisialdiko uneetan ere, ahalik eta bateragarrien egitea, batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzan; eta, horrekin eta hezkuntza-sisteman inplikaturako beste pertsona askoren enplegua sortzeko eta mantentzeko beste neurri batzuekin, Nafarroako ekonomia pixkanaka suspertzen laguntzea.

Oinarrizko premisa horietatik abiatuta, kontingentzia-protokolo bat prestatu da, bi agertoki desberdin aurreikusten dituen 2021-2022 ikasturterako. Lehenbizikoan (1. egoera), irakaskuntza-jarduera presentziala bermatzen da etapa eta maila guztietan. Zuhurtziaz, eta kontuan hartuta iraila hilabete berezia dela, aurreikusten da ikasturte hasieran 2020-2021 ikasturteko ordutegi bera izatea, eta, pandemiaren bilakaeraren arabera, lehenbiziko agertoki horren barrenean bi aukera daude: bata, neurri batzuk lasaitzea, eta, bestea, ikastetxeetako lanaldiari dagokionez normaltasunera itzultzea.

Aurreikusitako bigarren agertokia da ikastetxeak erabat ixtea, izan ikastetxe bat, batzuk edo denak, osasun-agintariek zehazten dutenaren arabera.

Pandemiaren bilakaeraren arabera, osasun agintariak bestelako jarraibideak ezarriko balituzte, kontingentzia-protokolo hau egokitu beharko litzateke, eta berriz zehaztu, agertoki berriaren arabera.

Hezkuntza-administrazioari dagokio jarduketa-esparru orokorra zehaztea Nafarroako Foru Komunitate osorako, eta ikastetxeetako arduradun-taldeek zehaztu beharko dituzte esparru orokor horren xehetasunak, beraien errealitatearen arabera.

Nafarroako Gobernuak eman du dokumentu honetan aurreikusitako protokoloa abiarazteko baimena, eta protokoloak dagokion aurrekontu-zuzkidura eta osasun-agintarien oniritzia ere jaso ditu.

Halaber, protokoloa kontsultatu da ikastetxe publikoetako zuzendariekin, irakaskuntza itunduaren eta pribatuaren sektorearekin, erakunde sindikalekin eta Nafarroako hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin, Foru Komunitateko ikastetxe guztiei eragiten baitie.

Dokumentu hau osatuko da ikastetxeak prestatuko duen bertako Kontingentzia Planarekin. Zuzendaritza-taldeek irakasle bat edo gehiago izendatuko dituzte COVID-19arekin lotutako gaietarako erreferenteak izan daitezen. Pertsona horiek, besteak beste, planaren prestatetan parte hartuko dute, eta egin beharreko ekintza guztiak jakinaraziko dizkiete Eskola Kontseiluak izendatuko dituen ordezkariak, hezkuntza komunitatea jakinaren gainean egon dadin.

Azaldutakoarekin bat, eta Hezkuntzako eta Lanbide Prestakuntzako Ministerioaren eta osasun agintarien ildoei jarraikiz, honako alderdi hauek jasotzen dira dokumentu honetan:



- 1. Pandemiari egokitutako eskola-antolaketa**
- 2. Ikasmilen eta arloen programazio didaktikoa**
- 3. Hornidura teknologikoa**
- 4. Gaitasun digitala indartzeko plana**
- 5. Urruneko eskola-jarduerarako tutoretza plana**
- 6.- Antolakuntza- eta segurtasun-neurriak**

1. PANDEMIARI EGOKITUTAKO ESKOLA-ANTOLAKETA.

A.- IKASTETXEEN ANTOLAKUNTZARI BURUZKO ZENBAIT GOGOETA OROKOR.

Ardatz nagusiak.

Helburu nagusia izanik COVID-19aren aurrean langileen zein ikasleen segurtasuna eta osasuna bermatzea, dokumentu hau ardatz hauen inguruan eratu da nagusiki:

- Kutsatzeak ekiditea.
- Ikastetxeetan gerta daitezkeen kasuak garaiz detektatzea eta bakartzea.
- Lehentasuna ematea irakaskuntza presentzialari eta ikasle kalteberenen arretari.
- Lehentasuna ematea ikasle gazteenen irakaskuntza presentzialari, haien autonomia eskasagoa baita; zehazki, Haur eta Lehen Hezkuntzan.
- Familien familia- eta lan-bizitza bateragarri egitea, ikasleei arreta egokia ikastetxean ematea lehenetsiz.
- Ahal den neurrian, hezkuntza-sisteman inplikaturako sektore ekonomikoen enpleguari eustea (irakasle ez diren langileak, garraioa, jangela, garbiketa...).

Frogatua dago edozein patogenoren kontrolerako bi alderdi nagusi hartu behar direla kontuan:

- Espazioak eta pertsonen joan-etorriak antolatzea.
- Neurri higienikoak.

Zenbait neurri mantentzea.

Badira segurtasun-neurri batzuk –esaterako, higienezaren eta garbitasunaren inguruko irizpideak– berdin ezar daitezkeenak pandemia gainditu ondoren ere, onuragarriak baitira hau eta beste edozein agente infekzioso kontrolatzeko.

Hezkuntza komunitatea jakinaren gainean egotea.

Oso garrantzitsua da hezkuntza-komunitate osoari zabaltzea jarduera-protokoloari buruzko informazioa, bai eta protokolo honetan jasoak eta ikastetxean ezarriak dauden neurriari buruzko informazioa ere (prebentzioa, higiena eta osasuna sustatzeko neurriak), eta ongi uler daitezzen bermatzea.

Helburua hau da:

- Jarraitu behar da ikastetxeko langileei prebentzio- nahiz higiene-neurriei buruzko informazioa eta trebakuntza ematen, eta haiek helaraziko diete hori hezkuntza komunitateko gainerako kideei.
- Informazioa igorriko zaie familia guztiei, eta kanal ireki bat mantenduko da, sor litezkeen zalantza guztiak argitzeko.
- Infografiak, kartelak eta seinaleak erabiltzen jarraitu behar da, prebentzio- eta higiene-neurriak ulertzea eta betetzea sustatzeko. Informazio hori osasun-agintarien irizpideen arabera eguneratua egotea zaindu behar da.

Antolaketari dagozkion alderdiak.

Antolakuntzari dagokionez, litekeena da zenbait neurrik jarduera edo metodologia batzuen gauzapena mugatzea, eta kasu horietan malgutasunez ezarriko dira, une epidemiologikoaren arabera egokituz, eta era murriztaileagoan edo malguagoan ezarriz, uneko osasun-arriskuak eta onurak baloratuta.

Sektore blokeagarrien sistema.

Kontzeptua. Espazioen eta pertsonen joan-etorrien antolaketari dagokionez, proposatzen den protokoloa sektore blokeagarrien sistema batean oinarritzen da. Egoerarik murriztaileenean, ez da izanen sektoreen arteko komunikaziorik, baina egoera epidemiologikoaren arabera, haien iragazkortasuna handitu daiteke. Sektore bakoitza osatzen dute langile eta ikasle jakin batzuek eta espazio zehatz batzuek, eta blokeoa lotua dago sektoreen arteko iragazkortasunarekin. Iragazkortasuna esanda ulertu behar da pertsonak sektore batetik bestera igarotzea eta espazio partekatuak erabiltzea.

Blokeoaren mailak. Gerta daiteke blokeoa erabatekoa edo partziala izatea edo blokeorik ez izatea; erabatekoa bada, ez da izanen pertsonen joan-etorriarik sektoreen artean, ez eta espazio partekaturik ere.

Egoera epidemiologikoa osasun-agintariak zehaztuko dute, eta maila desberdinak ditu, osasun-egoeraren larritasunaren arabera eta kutsatzeko arriskuaren arabera. Uneko egoera epidemiologikoa aintzat hartuta erabaki behar da zein izanen den ikastetxeetako blokeo-maila, bai ikastetxean agertzen diren kasuen arabera eta bai Foru Komunitatean, agerraldi berezi bat sortuz gero, ezartzen den osasun-egoeraren arabera.

Sektore blokeagarrien sistemaren helburua. Sektore blokeagarrien sistemaren xedea da eremutan banatzea bai pertsonak eta bai haiek okupatutako espazioak, halako moduz non, agerraldi baten aurrean, aukera izanen den osasun-agintaritzak sektore baterako zehaztutako neurriak hartzeko, gainerako sektoreek zaintza zorrotzeko eta alertako sistema baten pean funtzionatzen jarraitzen duten bitartean.

Sektore blokeagarrien egitura. Sektoreen plangintzan kontuan izan behar da zedarritutako eremu bakoitza honako hauek osatuko dutela:

Pertsonak:

Ikastalde bat edo batzuk eta haien irakasleak (multzoak egin daitezke, ikasmilen, mailaren edo etaparen arabera, ikastetxearen tamaina eta espazioak kontuan hartuta).

Espazioak:

Ikasgelak, pasabideak, komunak, jolastokiak, jantokiak, kiroldegiak, etab.

Ahal bada, sektore bakoitzak bere komunak izan behar ditu, eta inoiz ez ditu erabili behar beste sektore bati esleitutako komunak, edozein dela ere blokeo-maila. Gauza bera pasabideekin eta jolastokiekin.

Sektore blokeagarrien funtzionamendu orokorra. Sektorearen barnean murriztu egin behar dira pertsonen joan-etorriak eta ikasgelen trukea, eta ez da sektore batetik bestera ibili behar, ez ikasleak ez irakasleak, kasu oso berezietan izan ezik, esaterako, espezialisten arretaren kasuan.

Sektore batek baino gehiagok sarbide bera erabili behar dutenean (sarrera, pasabideak, eskailerak, etab.) modu mailakatuan egingen dute, pilaketak saihesteko eta ez ibiltzeko denak aldi berean eremu komunetan.

Irakasleak eta ikasleak, ikasgela batetik bestera doazela, edo ikasgelatik bulegora, birusa sektore guztietara zabaldu dezaketen bektoreak direnez, ikastetxearen barneko joan-etorriak ahalik eta gehien saihestu behar dira. Garrantzitsua da pertsona bakoitzak, dela irakaslea dela ikaslea, ahal den neurrian, bere lekua izatea eta lanerako berak bakarrik erabiliko duen material pertsonala izatea.

Sektoreen blokeoa. Ez da inolaz ere ikaslerik ibiliko sektore batetik bestera. Irakasleen sektore arteko joan-etorriak blokeo-mailaren arabera izanzen dira, beti kontu handiz zainduz arreta eta neurri higienikoak.

Erabateko blokeoaren kasuan ezinezkoa izanzen da aldatzea edo partekatzea ez ikasgelarik, ez bestelako espaziorik, esaterako, gimnasioa edo kiroldegia.

Ondoko taula honetan erakusten da espazioen sailkapena, eraikina sektoretan banatzeko ideia horretan oinarritua:

SEKTOREAK				
			Sektore eskusibotasuna	Blokeagarria
ESPAZIOAK	IKASGELA NAGUSIAK	Ikasleek erabili ohi dituzten ikasgelak	BAI	BAI
	IKASGELA OSAGARRIAK	Musika- eta hizkuntza-gelak, gimnasioa, laborategiak, jantokia, tailerrak, etab.	EZ	BAI
	PASAGUNEAK		EZ	EZ
	JOLASTOKIA		EZ	BAI
	KOMUNAK		BAI	BAI
PERTSONAK	Ikasleak	Funtzionaltasunaren arabera biltzea, esaterako, ikasmaita edo etapen arabera. Jendetzak saihestea	BAI	BAI
	Irakasleak	Sektoreko ikasmaila klasea ematen dieten irakasleak	BAI	BAI
	Irakasle espezialistak	Ikasmaita/Sektore desberdinetako ikasleen irakasleak	EZ	BAI
Talde berezia	Zuzendaritza/Idazkariak		EZ	EZ
	Espezialistak eta irakasle ez diren	Orientazioa, logopedia,	EZ	BAI

	langileak	zaintzaileak, etab.		
	Atezaintza		EZ	EZ
	Garbiketa- eta mantentze- zerbitzuak eta langile teknikariak.		EZ	EZ

Bizikidetza-talde egonkorrak:

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan, sektoreen barneko ikasleen bizikidetza-talde egonkorrak definituko dira. Bizikidetza-talde egonkorra da ikasle talde batek (gehienez 25) eta eskola ematen dien irakasle taldeak osatzen dutena, eta ikastetxeko gainerako taldeetatik ia erabat bakartua dagoena. Horrela, ikasgela barneko mugimendua askea da, eta ez da beharrezkoa pertsona arteko 1,5 metroko tartea gordetzea.

Antolaketa horri esker, ikasleek ikasgela barnean interakziorako aukera dute eta, beraz, aukera dago lankidetzan eta elkarlanean oinarritutako metodologia berriak aurrera eramaten jarraitzeko. [Eskolako altzarien kokapena mota horretako metodologiek eragindako beharretara egokitzen ahalko da \(mahaiak borobilean jartzea, taldeka, etab.\).](#)

Oso garrantzitsua da azpimarratzea saihestu behar dela, ahal den gehien, talde egonkorraren eta gainerako ikasleen arteko harremana, are sektore bereko ikasleekin ere, espazio komunetan, esaterako, jolastokian edo jantokian.

Higiene-neurriak:

Gobernu Zentralaren eta autonomia-erkidegoen artean adostutako esparru-dokumentuan ezartzen den bezala, COVID-19aren aurrean prebentzioa, higiena eta osasuna sustatzeko oinarritzko printzipioak ikastetxeetan honako printzipio hauetan egituratzen dira:



B.- EGOEREN SAILKAPENA UNEKO OSASUN -EGOERAREN ARABERA.

B.1 2. egoera: sektoreen blokeatze indartua.

1.- Taldeen eta ordutegiaren antolaketa.

Egoera honetan arreta presentziala bermatuko da ikastetxe guztietan, ikasle guztientzat, eskola-egun guztietan.

Arau orokor gisa, ikasgelen antolamendua eta ikasgelako ikasle-ratioa zehazterakoan, pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metroko distantzia errespetatzeko ahalegina egin behar da. Horretarako, ratioa definitzen da ikasleko 2,25 m²-ko gutxieneko azalera errespetatuz. Irizpide horren arabera, ikasgelen edukiera haien tamainaren arabera izanen da, eta gehienez 25 ikasle elkar daitezke HLHn, 30 ikasle DBHn eta 33 Batxilergoan, ikasgelaren azalera horretarako aukera ematen badu.

Haur Hezkuntzan, etapa horren berezitasuna dela eta, ratioa 20 baino handiagoa duten ikastetxeetan, izan publikoak zein pribatuak, Hezkuntza Departamentuak beste irakasle bat gehituko du, ikasgelako 20 ikasleko ratioa aplikatuta lortzen den talde berri bakoitzeko. Zuzkidura hori talde txikiagoak lortzeko erabiliko da lehentasunez.

Espazioek ez badute talde berriak sortzeko aukerarik ematen, zuzkidura Haur Hezkuntzako ikasgeletan erabiliko da errefortzu gisa.

Lehen Hezkuntzan, ikastetxe publikoei hezkuntza-lanaldiaren heren bateko laguntza emanen zaie ikasgelako 20 ikasleko ratioa aplikatuta lortzen den talde berri bakoitzeko. Ikastetxe itunduetan, laguntza hori lanaldiaren %10ekoa izanen da.

BHIetan, DBHIetan, Lanbide Heziketako Zentroetan eta Arte Eskoletan, lanaldiaren laurden bateko laguntza emanen da 12 unitateko multzo bakoitzeko, gehienez irakasle bat gehiago izan arte ikastetxe bakoitzeko. Irakaskuntza mota hori ematen duten ikastetxe itunduetan, laguntza 2 ordukoa izanen da 12 unitateko multzo bakoitzeko, gehienez irakasle bat gehiago egon arte.

[Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldeak erabakiko du nola aprobetxatu hobekien Lehen Hezkuntzatik aurrera \(hori ere barne\) emandako aparteko orduak.](#)

Ikastetxeetako zuzendaritza-taldek posta elektronikoen bidez eskatzen ahalko dituzte ikastetxea osatzen duten eraikinen planoak, Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuan: infraestructuraseducativas@navarra.es

Hala ere, Haur eta Lehen Hezkuntzan, 25 ikasle arteko talde guztiak hartzen dira bizikidetzat-talde egonkortzat eta, beraz, urruntzeko neurria ez da aplikagarria izanen hezkuntzaren etapa horietan dauden taldeen barnean, eta horrenbestez, posible da talde bakoitzeko ikasleen arteko interakzioa, ikastetxeko espazio desberdinetan. Hala ere, gutxieneko segurtasun-tartea errespetatu behar da talde desberdinetako ikasleen artean.

25 ikasletik goitiko ratioa duten Haur eta Lehen Hezkuntzako taldeetan, ezin bada 1,5 metroko tartea gorde ikasgelaren tamainagatik, kasu bakoitza aztertuko da ikastetxeetako arduradunekin, konponbiderik egokiena emateko.

Baldin eta ikasleak ahal den modurik zabalenean hartzeko helburuz, ikastetxe bakoitzeko talde arduradunak beharrezkotzat jotzen badu zenbait espazioren erabilera birdefinitzea, aukera hori aztertuko da (espazio horiek izan litezke berariazko gelak, liburutegiak, banaketa-gelak, etab.).

Bost unitate edo gutxiagoko landa-zentroetan, talde arduradunak proposatzen ahalko du taldeak beste modu batera antolatzea edo prebentzio-neurriak malgutzea; Ikuskapen Zerbitzuak baimendu beharko du hori. Dena dela, proposatutako antolamendu berrian, taldekatzeek ez dute 25 ikasle baino gehiago izanen, oro har.

Egoera honetan, sektoreen iragazkortasuna oso mugatua da. Irakasleak ezin dira sektore batetik bestera igaro, kasu oso puntaletan ez bada (irakasle espezialistak). Ikasleei dagokienez, ez dute partekatuko beren erreferentziako ikasgela beste ikastaldeetako ikasleekin. Bizikidetza-talde egonkorrek ezin izanen dituzte berariazko gelak erabili, kiroldegiak eta gimnasioak izan ezik, baldin eta horiek aireztatzen badira eta segurtasun tarteak bermatzeko aukera ematen badute.

Gorputz Hezkuntzako eta Musikako espezialisten kasuan, honela jokatu behar da:

Gorputz Hezkuntza

Gorputz Hezkuntzako irakasleek ahal den guztietan klaseak aire zabalean eman behar dituzte.

Ezin bada aire zabalean ibili, ahalegina egingen da eremuak izan daitezten ongi aireztatuak, aski zabalak eta segurtasun tarteak gordetzen dituztenak. Jarduera fisiko mota espazioen ezaugarrietara egokitu beharko da. Nolanahi ere, instalazioa etengabe aireztatu beharko da.

Irakasgai hau ezin bada aipatutako baldintzetan garatu, ikasgaiaren garapena egokitu beharko da erreferentzia geletan.

Musika

Lehen Hezkuntzan lan egiten duten eta Haur Hezkuntzan laguntzaile aritzen diren musikako irakasleek programazioa egokitu beharko dute, bizikidetza-talde egonkor batekoak diren ikasleen erreferentziako ikasgelan lan egin ahal izateko. Gainerako etapetan, arreta bereziz aireztatu eta garbitu behar dira bai ikasgela, bai altzariak eta musika-tresnak; orobat, ahalik eta gehien mugatu behar da tresna horiek ikasle guztiek erabiltzea, eta, haizezkoak badira, baita debekatu ere.

Ikastalde egonkor batean ikasle batzuek ikasgai bat ikasten dutenean, eta beste batzuek ez, esaterako, Euskara A erduan, Erlijioa eta Atzerriko bigarren Hizkuntza, honako kasu hauek gerta daitezke:

- a) Talde desberdinetako ikasleak elkartu behar izatea:

Kasu horretan, adingabeen arteko harremanak saihesteko behar diren segurtasun-neurriak aplikatuko dira, baita bereizteko bitarteko fisikoak ere (manparak), bizikidetza-talde egonkor desberdinetako ikasleak banatzeko.

b) Talde desberdinetako ikasleak elkartu beharrik ez izatea:

Ikastetxeak ez badu banaketak egiteko beste espaziorik, irakasle espezialista erreferentziako ikasgelara joanen da, eta han bi espazio bereziko dira: bat, tutorearekin gelditzen diren ikasleentzat, eta beste bat, aukeratutako gaia landuko duten ikasleentzat.

Ikastetxeak jarduera horiek egiteko beste gela edo espazio batzuk dituenean, hainbat ikasle-taldek erabiltzen ahalko dituzte banaketa-gelak eta berariazko gelak, betiere higiene- eta aireztapen-neurriak betetzen badira.

1.1 Haur eta Lehen Hezkuntza:

Bi etapa hauetako ikasleek irakaskuntza presentzialarekin jarraituko dute, eskola-egun guztietan.

2021-2022 ikasturtea goizeko lanaldi jarraituarekin hasiko da. Lanaldiak, oro har, 45 minutuko sei saio izanen ditu, eta 30-40 minutuko atsedenaldira; atsedenaldira dena batera har daiteke, edo zatika. Oro har, lanaldia ez da 09:00ak baino lehen hasiko, eta beranduenez ere 14:30ean bukatuko da. Eskola garraioaren ibilbidea partekatzen duten ikastetxeek sarrera- eta irteera-ordutegiak koordinatu beharko dituzte, ibilbideak handitu ez daitezela. Horretarako, kontuan hartu behar dira jangela-zerbitzua erabiltzen duten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle garraiatuak. Kasu oso berezietan, behar bezala justifikatutako zirkunstantziak daudenean, paragrafo honetan jasotako aurreikuspenen bat salbuesten ahalko da, aldez aurretik Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak baimena emanda.

Klaseko lehenbiziko eguna erabiliko da, besteak beste, ikasleei eta haien arduradunei azaltzeko zein diren sartzeko eta ateratzeko ordutegiak, zein jolastokiko harrera- eta jolas-guneak, eta zein ibilbide dagozkien sartzeko eta ateratzeko. Antolakuntza-neurri horiek erreferentziako ikuskatzaileari aurkeztu behar zaizkio, eta ondoren familiei, eskola-jarduerak hasi aurretik. Egun horretarako prestatuta egon behar dute beharrezkoak diren seinaleztatze- eta balizatze-neurriak. Ikasleei bidean lagunduko dieten irakasleak zuzendaritza-taldeak izendatuko ditu.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailako ikasleen egokitzapen aldiari dagokionez, jarraibide hauei jarraituko zaie:

- Ikastetxea beregaina da ikasle horien egutegia eta sartze-ordutegia talde txikietan antolatzeko, betiere jarraikiz irakaskuntza horiek ematen dituzten ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituzten urteko jarraibideei.
- Gomendatzen da harrera-prozesua, ahal dela, ikastetxearen kanpoko eremu batean egitea.
- Ikasgela berean talde-aldaketa bat baldin badago, eremuak aireztatu eta garbitzeko neurriak aplikatu behar dira, ikastetxearen kontingentzia-planaren arabera.
- Haur bakoitzari pertsona bakarrak lagunduko dio ikastetxera. Nolanahi ere, laguntzaile hori alda daiteke egokitzapen-aldian zehar.
- Harrera-prozesua, salbuespenez, eraikinaren barnean egin behar bada, laguntzaileak zehatz-mehatz bete beharko du ikastetxeak ezarritako protokoloa.
- Laguntzaileak ezin du harrera-aldian parte hartu, baldin eta COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu edo bakartze aldian edo berrogeialdian badago. Horretaz gainera, COVID-19aren aurrean arriskuko eritasun bat duten laguntzaileak (diabetesa, eritasun kardiobaskularra –hipertentsioa barne–, eritasun hepatico kronikoa, biriketako eritasun kronikoa, giltzurrunetako eritasun kronikoa, immunoeskasia, fase aktiboan dagoen minbizia, obesitate morbidoa) eta haurdun dauden emakumeak harrera-aldian parte hartzea komeni den jakiteko beren erreferentziako mediku-taldearen ebaluazioa beharko da.

1.2 DBHko eta Batxilergoko ikasleak:

2021-2022 ikasturtea goizeko lanaldi jarraituarekin hasiko da. Bi etapa hauetako ikasleek irakaskuntza presentzialarekin jarraituko dute, eskola-egun guztietan.

Oro har, DBHko eta Batxilergoko ikasketak egiten dituzten ikasleen ordutegia ohikoa izanen da, betiere 08:00etatik 15:00etara bitartekoa bada. Bestela, ordu-tarte horretara egokitu beharko da, gehienez ere 50 minutuko zazpi saio eginez, atsedenerako 40 minutu gordeta. Atsedenaldiak, oro har, bi alditan banatuko dira: bata gehienez 30 minutukoa izanen da eta bestea gutxienez 10 minutukoa. Eskola garraioaren ibilbidea partekatzen duten ikastetxeek sarrera- eta irteera-ordutegiak koordinatu beharko dituzte, ibilbideak handitu ez daitezten. Horretarako, kontuan hartu behar dira jangela-zerbitzua erabiltzen duten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle garraiatuak. Kasu oso berezietan, behar bezala justifikatutako zirkunstantziak daudenean, paragrafo honetan jasotako aurreikuspenen bat salbuesten ahalko da, aldez aurretik Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak baimena emanda.

1.2.1 DBHko 1.tik 4.era bitarteko eta Batxilergoko 1. eta 2.eko ikasleak.

Ahal dela, ikasgelako ikasle-ratioa ikasle bakoitzeko 2,25 m²-ko baldintzara egokituko da. Ikastetxeetan era desberdinetan banatzen dira dibertsitateari, aukerako irakasgaiei eta ibilbideei arreta emateko ordutegiak eta, horregatik, beren autonomiaren baitan, antolaketa desberdinak proposatzen ahalko dituzte ikastetxeek, lagun arteko gutxienerako urruntzea errespetatuz, betiere.

Edonola ere, ikastetxeek neurri hauetako bat aplikatzen ahalko dute:

- 1) Ikasleak erreferentzia gelan egonen dira.
- 2) Taldeko soberakina aintzat hartuko da arau honen arabera:
 - a) Talde bakoitzeko soberakinek online bidez jarraituko dituzte klaseak (streaming...), eta guardiako irakasleen arreta izanen dute¹. Horretarako, behar duten material informatikoa emanen zaie, eta ikastetxean behar diren espazioak izanen dira. Ikasleek eskola presentzialetara joateko aukera ekitatiboa izatea errespetatuko da. Horrek eskatzen du arreta telematiko eta presentzialerako txandak antolatzea.
 - b) Antolaketa horren ondorioz, ikastetxeko espazioek ikasle guztiei goizeko ordutegian arreta emateko aukera ematen ez badute, arratsaldeko txanda

¹ Beharrezkoa balitz, zuzeneko irakaskuntzakoak ez diren bi eskola-orduak edo aparteko laguntzak erabiltzen ahalko dira COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoriozko antolaketa espezifiko horrek ekarriko dituen guardiak egiteko.

antolatzen ahalko da. Horretarako, ikastetxe publikoetan kontuan izan behar dira ondoko irizpide hauek:

i) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

Garraioa izateko eskubidea duten ikasleei arreta goizean emanen zaie.

ii) Batxilergoa:

Garraio-plaza hutsen onuradun diren ikasleei eta ikastetxera beste herri batetik etorri behar duten ikasleei goizeko ordutegian emanen zaie arreta, antolakuntzak aukera ematen badu.

1.2.2 IEHP, CEP eta GMP programetako taldeak:

Ikasleak egunero joanen dira ikastetxera, ikastetxeko ordutegi orokorrari jarraituz.

1.3 Hezkuntza Berezia:

Hezkuntza bereziko ikastetxeetako edo egituretako ikasleentzat, etapa guztietan, eskola-jarduera presentziala bermatuko da etapa bakoitzarentzat definitutako ordutegian, eta plan espezifikoak egingen dira Inklusio, berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuarekin lankidetzan.

1.4 Araubide Bereziko Irakaskuntzak (Helduak, Hizkuntzak, Musika eta Dantza).

Ikasgelak eta eskola presentzialak antolatuko dira Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat deskribatu den modu berean.

1.5.- Lanbide Heziketa.

Ikastetxeko sarrera-irteerei dagokienez, sartzeko eta ateratzeko gunek dibertsifikatuko dira, eta sarrerak egiteko modu ordenatua ezarriko da, sektoreen arabera, lehentasuna emanaz ohiko espazio hurbilei, eta norabide bakarreko joan-etorriak erraztuz.

Sartzeko eta ateratzeko uneak mailakatu egingen dira, betiere klaseen hasierako eta amaierako ordutegiari eutsiz. Eskola-garraioan etortzen diren ikasleen kasuan, kontuan hartu behar da talde berean etortzen direnen ordutegiek izan behar dutela elkarren artean bateragarriak.

Espazioen eta ikasleei eman beharreko arretaren antolakuntza.

Helburua izanik, ahal den neurrian, ikasleen mugikortasuna saihestea, ikastetxea eremutan banatu beharko da familia profesionalen eta espezialitateen arabera, eta erreferentziako espazio bat emanen zaio talde bakoitzari; beharrezkoa balitz, erabilera komuneko ez-ohiko espazioak ere prestatuko dira, esaterako, liburutegia, erabilera anitzeko gelak, etab.

Ikasle/ikasgela ratioa egokitu beharko da ikasle bakoitzeko 2,25m² baldintzaren arabera, lagun arteko 1,5 metroko tarte gordez. Halaber, ahalegina egin behar da tailerretan, laborategietan eta bestelako espazio espezifikoean ikasleen arteko gutxieneko segurtasun-tarte gordetzeko. Beren autonomiaren barrenean, proposatzen ahalko dituzte pertsonen artean segurtasun-tarte gordetzeko oinarrizko printzipioa errespetatzen duten antolaketa-modu desberdinak.

Egoera epidemiologikoa dela eta, beharrezkoa bada, zehaztu egingen da zein diren zeharkako prestakuntza-elementuak (LPO, Enpresa eta Ekimen sortzailea, hizkuntzak...), baita gainerako lanbide-moduluetako edukirik teorikoenak ere; horiek, ahal dela, teleprestakuntzaren bidez emanen dira. Era berean, irakasleen eta ikasleen ordutegiak aldatzen ahalko dira, asistentzia presentziala bermatzeko, gutxienez, ikasle guztien eskola-ordutegien %50ean. Presentzialtasunaren antolaketa irakasle-taldearen irizpideen arabera egingen da, eta ikastetxeko zuzendariaren oniritzia beharko du.

Oinarrizko Lanbide Heziketako taldeetan, kontuan hartuta talde mota horretarako ezarritako ikasle/ikasgela ratioa, ikasle guztiak egunero ikastetxera joanen dira.

Halaber, ez-ohiko ordutegiak antolatzen ahalko dira jarduera presentzialak aurrera eramateko, lehentasuna emanez, betiere, eskola-garraioa erabiltzen duten ikasleen ordutegien sinkronizazioari, garraioa partekatzen duten taldeen ordutegiekin.

Espazioen antolaketa berriak aurrera eramateko, banaketako irakasleak baliatuko dira, eta guardiako irakasleei ikasleen arreta zuzenaren ardura ematen ahalko zaie, aldi berean bermatzeko ahalik eta saio presentzial gehien ematea eta ikasleen arteko urruntzea.

Zuzendaritza-taldea izanen da ikastetxeko kontingentzia-protokoloaren arduraduna. Departamentuko buruek eta zikloko koordinatzaileek protokolo hori

diseinatzen eta inplementatzen lagunduko diote zuzendaritza-taldeari, betiere Hezkuntza Departamentuak emandako ildo nagusiei jarraikiz eta heziketa-ziklo bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz.

Ahal dela saio presentziala eskatzen duten ikasgaiak antolatzerakoan, bete behar dira egoera horretarako ezarritako ratioak eta urruntze- nahiz higiene-neurriak.

Ziklo bakoitzeko heziketa-moduluen programazio didaktikoak prestatu behar dira bai modu presentzian bai erdipresentzian eman ahal izateko. Horregatik, edukiak sailkapen honen arabera katalogatuko dira.

Online prestakuntzarako berariaz prestatutako materialak irakasle guztien esku egonen dira, zuzendaritza taldeak ontzat eman ondoren, edozein dela ere irakasten duten heziketa modalitatea.

Tailerren, laborategien eta ekipamenduen antolaketari dagokionez, lanbide-arloak edo heziketa zikloak desberdinak direnez, berariaz zehaztuko da baliabide horien erabilera nolakoa izanen den.

Ikasgelako ikasleen ratioa eta ikasleen arteko urruntzea egoera horretarako ezartzen denaren arabera egokituko dira. Sektorizazioa planifikatuko da, ikasle-taldeek erabiltzen dituzten espazioen estankotasuna ahalik eta gehien areagotzeko.

Aldez aurretik eskabide informatua eginez, eta Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiaren baimena lortu ondoren, Lantokiko Prestakuntzako aldien antolaketa aldatzen ahalko da, eta orobat ikastetxean eta enpresan txandaka eman beharreko aldiak egokitzen ere, ikasle guztien gutxieneko presentzialtasuna betetzea errazteko.

Bai LP-an bai heziketa dualean, lehentasuna emanen zaio ikasleak enpresetan aritzeari. Halere, enpresetan aritzea eragozten duten ustekabeko egoerak gertatuz gero, heziketa dualeko ikasleak besterik gabe pasatuko dira irakaskuntza eredu arruntera. LPko ikasleen kasuan, egoera bideratzeko, hala egitea ahalbidetuko duen arau-babesa bilatuko da.

2.-Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak:

Egoera honetan, ikastetxeek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduera guztiak bertan behera gelditzen dira. Beste talde edo administrazio batzuek antolatzen

dituzten eskolaz kanpoko jarduerak osasun-agintariak une bakoitzean zehazten dutenaren arabera arautuko dira.

Jarduera osagarrien kasuan, egiten ahalko dira baldin eta osasun-egoerak uzten badu. Hala ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, lehenetsiko dira talde egonkor desberdinetako ikasleen artean interakziorik sortzen ez dutenak.

3.- Zerbitzu osagarriak. Eskola-garraioa eta jantokia:

3.1 Garraioa: indarrean den legediaren arabera garraiorako eskubidea duten ikasle guztien garraioa bermatuko da.

Dagoeneko aipatu den bezala, garraioa partekatzen duten etapa bereko edo desberdineko ikastetxeen arteko koordinazioa beharko da, ikastetxe horiek elkarrekin antolatzen jarraitu ahal izateko.

Maskararen erabilera nahitaezkoa izanen da hiru urtetik gorako ikasleentzat. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen garraiorako, irizpidea izanen da ondoz ondoko eserlekuetan ikasle txiki bat eta handiago bat izatea, handiena txikienaren zaintzailea izan dadin. Gainera, kontaktuen jarraipena errazteko, ikasleak beti leku berean eseriko dira. Osasun-agintariak erabakitzen dutenaren arabera maskararik erabili beharrik ez duten ikasleen arteko gutxieneko distantzia 2 metrokoa izanen da.

3.2 Jantokia

Garraiatutako ikasleei astegun guztietan eskainiko zaie jantoki-zerbitzua, astelehenetik ostiralera, ikasturtea hasten denetik bukatu arte.

Eskolako jantokia antolatu behar da ezarritako higienerako eta ikasleen arteko distantziarako neurriak bermatzeko moduan. Espazioa banatu behar da ikastetxean antolatu diren sektore eta talde egonkorren arabera, ahal den neurrian saihesteko ikasleen arteko kontaktu fisikoa. Beharrezkoa izanez gero, txandak antolatuko dira, eta Haur Hezkuntzako eskolak saio bat lehenago ere amaitzen ahalko dira, zerbitzua ahalik eta hobekien antolatzearen; oro har, zerbitzuak 15:45ean amaitu beharko du. Saio hori berreskuratu egin beharko da ikasleek jantokiko eta atsedeneko denbora hartu ondoren, eta, ahal dela, heziketa emozionaleko jarduerak egiten dira horretan. Arestian esandakoaren edozein salbuespen egiteko, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren baimena beharko da.

Egoera horretan, batez ere honako hauek izan behar ditugu kontuan:

- a) Ikasgelak ere erabiltzen ahalko dira bazkaltzeko, bizikidetza-talde egonkorrak mantendu daitezten. Janari beroa banatzeko, orga beroetan eramanen dira erretiluak. Hala egiterik ez balego, jaki beroak bazkalordurako ahalik eta gutxien falta dela eraman behar dira ikasgelara, tenperatura egokian egon daitezten. Ikasgelak behar bezain garbi daudela bermatu beharko da, elikadura-segurtasun neurriak betez bazkaldu ahal izateko.
- b) Jantokiko eremua eta ordutegiak antolatuko dira, bizikidetza-talde egonkor bakoitzak bere txanda eta jateko lekua izan ditzan. Balizatzeko eta/edo bereizteko materiala jarriko da, espazioa banatzen lagunduko duena, segurtasun-tartea errespetatzeko.
- c) Bizikidetza-talde egonkor berekoak ez diren ikasleen artean 1,5 metroko distantzia gorde beharko da, gutxienez, eta mahaiak eta aulkiak neurri hori betez antolatu behar dira.

Baldin eta jantokiaren antolaketa segurtasun- eta higiene-irizpide horien arabera egin ondoren ez balego ikasle guztientzako tokirik, bazkaltziarrak lehentasunen hurrenkera honen arabera hautatuko lirateke:

- 1.- Eskualdeko jantokietan, garraioa erabili eta jantokirako eskubidea duten ikasleak.
- 2.- Ekonomikoki ahulenak diren eta jantokirako laguntza hartzen duten familietako ikasleak.
- 3.- Lan arrazoiak direla eta, jantoki-zerbitzuaren ordutegian ezin direla seme-alabez arduratu frogatzen duten guraso bakarreko familietako ikasleak.
- 4.- Lan arrazoiak direla eta, zerbitzuaren ordutegian ezin direla seme-alabez arduratu frogatzen duten gurasoak dituzten gainerako ikasleak.
- 5.- Haur Hezkuntzako ikasleak.
- 6.- Gainerako ikasleak, adin-tarteen arabera ordenatuak, gazteenatik zaharrenetara.

Nolanahi ere, plazak esleitzeko orduan, kontuan hartuko da, anai-arreben kasuan, adingabea onartzen denean, horrek ikastetxe bereko neba-arreba zaharrena(k) ere onartua(k) izateko eskubidea sortzen duela.

4.- Egoeraren indarraldia eta har litezkeen erlaxazio-neurriak:

Egoera horri eutsiko zaio osasun-agintariek arrisku epidemiologikoak hala eskatzen duela uste duten bitartean.

Ikasturteko bi une zehatzetan soilik, urriko lehen hamabostaldian eta Eguberrietako oporren ondorengo lehen hamabostaldian, har litezke egoera hori erlaxatzeko neurriak, baldin eta osasun-agintariek hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazten badiote Hezkuntza Departamentuari egoera epidemiologikoak erlaxazio hori ahalbidetzen duela edo pandemia-arriskua desagertu dela, eta Hezkuntza Departamentuarekin hala adosten bada, bermatzeko behar bezala antolatzen dela ikastetxeen eta irakasleen lanaldia, bai eta garraioa eta jantokia ere. Hauek dira har litezkeen neurriak:

4.1.- Lanaldi jarraitua eskolaz kanpoko jardueren eskaintzarekin²:

Osasun-agintarien iritziz arrisku epidemiologikoko egoerak hori ahalbidetzen badu eta Hezkuntza Departamentuarekin hala adosten bada, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek irakasleek emandako eskolaz **kanpoko jarduerak eskainiko dituzte astean lau arratsaldetan**. Oro har, jarduera horiek 90 minutuko iraupena izanen dute, 45 minutuko bi alditan banatuta, eta beranduenez ere 17:00etan amaituko dira.

4.1.1- Garraioan eta jantokian duen ondorioa:

Garraioa: eskolaz kanpoko jarduerak amaitzean abiatuko da, non eta garraio-linea baten familia onuradun guztiek ez duten adosten bazkaldu eta berehala itzultzea, ikasle horiek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu gabe.

Jantokia: zerbitzua amaitzeko azken ordua 15:30era aurreratzen da, horrek aukera ematen baitu 45 minutuko bi jarduera eskaintzeko. Jantokian bazkaltzen duten ikasleen kopurua dela-eta hori ezinezkoa bada, ikastetxeko ikuskatzaileari eskatuko zaio, behar bezala justifikatuta, jarduera horien iraupena 90 minutu baino gutxiagora egokitu behar dela.

²Ikastetxe publikoetan irakastordutzat hartzen diren jarduera horiek jarduera osagarritzat hartzen dira ikastetxe pribatuetan eta itunduetan.

4.1.2- Irakasleen ordutegian duen ondorioa:

Ikasleei arreta egokia emanen zaiela bermatzeko, **ikastetxe publikoetan**, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak irakasleen irakastorduak egokitu egin beharko ditu; horretarako, lanaldi jarraitua onartua duten ikastetxeentzat xedatutako gidalerroei jarraitu behar zaie. Hauek dira:

Zuzeneko irakaskuntza-orduak: 19,5 ordu, hau da, zuzeneko irakaskuntzako 26 saio.

Eskola-ordu gisa kontatzen diren orduak: 5,5 ordu. Ordu horietatik atera behar dira, besteak beste, jolasaldiak zaintzeko orduak, zaintzak eta eskolaz kanpoko jardueretan ikasleei arreta ematekoak.

Ordu osagarriak: 5 ordu

Ordu horiek guztiak nahitaez ikastetxean eman beharrekoak dira, eta irakasleen ordutegi pertsonaletan jaso behar dira.

Ikastetxe pribatu eta itunduetan jarduera horiei erantzuteko, irakasleen lanaldia egokitu egingo da, araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.

4.1.3- Eskolaz kanpoko jardueren antolaketa

Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzean, ahal dela, errespetatu behar da talde egonkor eta/edo sektore desberdinetako ikasleen arteko interakzioa galarazteko oinarritzko printzipioa. Ahal den neurrian, lehentasuna emanen zaio jarduera horiek aire zabalean egiteari, ingurune heziketa indartzeko eta naturarekin lotura handiagoa duen pedagogia bat garatzen laguntzeko, edo bestela eremu handietan egiteari, hala nola gimnasioetan, kiroldegietan, jantokian, liburutegian eta abarretan. Ikastetxe bakoitzak modu autonomoan antolatzen ahalko ditu ikasleen, inguruaren eta gainerako baldintzen arabera egokitzen jotzen dituen eskolaz kanpoko jarduerak. **Jarduera horien barnean honako hauek egon daitezke, besteak beste: eskola-errefortzua, ikasketa gidatua, biharamunerako etxerako lanak egiteko aukera, hizkuntzekin lotutako jarduerak, teknologia berrien aplikazioa,**

kirol jarduerak edo ikastetxearen ingurune fisikoa ezagutzea (ingurune naturala edo hirikoa).

Jarduera horiek egiteko honela jokatu behar da:

- a) Ikasleek maskara jarri behar dute, adina edozein dela ere, osasun-agintariak zehazten dutenaren arabera.
- b) Etapa bereko taldekako banaketa lehenetsiko da eta, etapa horren barnean, hezkuntza-maila berekoa.
- c) Osasun-egoeraren arabera zehazten diren prebentzio-neurriak errespetatu behar dira.

Jarduera horiek borondatezkoak direnez ikasleentzat, plaza-eskaria eskaintza baino handiagoa bada, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

- 1.- Eskualdeko ikastetxeetan, garraiorako eskubidea duten ikasleak.
- 2.- Ekonomikoki ahulenak diren familietako ikasleak.
- 3.- Lan arrazoiak direla eta, ordutegi horretan ezin direla seme-alabez arduratu frogatzen duten guraso bakarreko familietako ikasleak.
- 4.- Lan arrazoiak direla eta, ordutegi horretan ezin direla seme-alabez arduratu frogatzen duten gurasoak dituzten gainerako ikasleak.
- 5.- Haur Hezkuntzako ikasleak.
- 6.- Gainerako ikasleak, adin-tarteen arabera ordenatuak, gazteenatik zaharrenetara.

Nolanahi ere, tokien esleipena egitean, kontuan hartuko da, anai-arreben kasuan, txikiena onartzeak zuzenean sortzen duela ikastetxe berean ari diren haren senide zaharragoak ere onartuak izateko eskubidea.

Beste kolektibo edo Administrazio batzuek edo, hala badagokio, ikastetxeak berak antolatzen dituen eskolaz kanpoko gainerako jarduerak osasun-agintariak unean-unean behar dutenaren arabera arautuko dira, eta ordu-espazio berean bateragarriak izan daitezke ikastetxeek beren irakasleekin antolatzen dituztenekin.

4.2.- Ohiko lanaldira itzultzea:

Osasun-agintarien iritziz pandemiaren arrisku-egoerak hala ahalbidetzen badu, ikastetxe bakoitza 2020-2021² ikasturtea baino lehen zuen ohiko lanaldira itzuliko litzateke, eta jarduera osagarriek, eskolaz kanpokoek eta gainerako zerbitzuek (garraioa eta jantokia barne) ohiko moduan funtzionatuko lukete. Osasun-agintarien onespena izanez gero, berriz ere normaltasunez onartuko da ikasturte bereko taldeen arteko interakzioa, batez ere aire zabaleko jardueretan (jolasaldiak, kirol-jarduerak, proiektuak, etab.).

Bestalde, osasun-agintariak aldatu egiten badituzte “COVID-19a dela eta, ikastetxeetarako prebentzio, higieine eta osasunaren sustapenerako neurriak” dokumentuan jasotako neurriak, protokolo hau ezartzen diren neurri berrietara egokitu egingen da ikasturteko bi data horietan (urria eta urtarrila), salbu eta Ministerioak ezarritako neurri berriak murriztaileagoak badira pandemiaren eraginagatik eta berehala aplikatu behar badira.

B.4 2. egoera: ikastetxeak ixtea.

Agintariak ikastetxeak ixtea agintzen badute, bertan behera geldituko da irakaskuntza presentziala.

Egoera epidemiologikoak aukera emanez gero, eskola-laguntza presentziala mantendu egingen da behar bereziak dituzten adingabeentzat edo egoera sozial ahulean dauden familietakoentzat.

Lehen Hezkuntzako 4. ikasturtetik goitiko ikasle guztiei behar dituzten ekipoak eta konektibitatea bermatzeko moduan dago Hezkuntza Departamentua, adin horretako ikasleen autonomia-mailak aukera ematen baitu irakaskuntza mota horren etekin handiena bermatzeko.

Lehen Hezkuntzako gainerako ikasturteetarako eta Haur Eskolako etapa guztirako, Hezkuntza Departamentua lankidetzan ariko da ikastetxeekin, material horiek familien eskura jartzeko neurriak artikulatzeko.

² Ikastetxeren batek 2020-2021 ikasturtea baino lehen lanaldi zatitua izan, eta 2022-2023 ikasturterako lanaldia aldatzeko eskatua balu eta eskaera hori onetsiko balitz, ikastetxe horrek lanaldi jarraitua izaten jarrai lezake, lau arratsaldetan eskolaz kanpoko jarduerak eginez.

Lehen Hezkuntzako lehenbiziko hiru mailetan arreta berezia jarriko da irakurtzeko eta idazteko gaitasunean eta irakurketaren ulermenean.

Ikasturtearen hasieran, arreta ez-presentzialera itzuli beharreko uneak izan daitezkeela aurreikusiz, zuzendaritza taldeek Arreta Digital Ez-presentzialeko Plan bat artikulatu beharko dute, agertoki horretan ahal den komunikaziorik hoberena lortzeko ikastetxeen, ikasleen eta familien artean. Arreta Ez-presentzialeko Plan horren oinarritzko irizpideak EDUCAn erregistratuta egon behar dute maila diferenteetan.

Era berean, 2021-2022 ikasturtean zehar ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua arautzeko jarraibideak onesten dituen Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenean, urrutiko prestakuntza bat programatuko da, irailean hasita, nahi duten ikastetxeentzat, erreferentzia gisa balio dezan ikastetxearen Arreta **Digital** Ez-presentzialeko Planaren proposamena artikulatzeko. Hori aurrera eramateko kontuan hartuko dira ADDIE eredua eta haren bost faseak: analisia, diseinua, garapena, inplementazioa eta ebaluazioa (ADGIE).

Prestakuntza hori, eta irakaskuntza-ikaskuntzarako hezkuntza-baliabideen banku bat, eskuragarri egonen dira <https://ikasnova.digital/eu/> (arreta ez-presentzialeko plana).

Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzat Zerbitzua, batez ere NHBBZ zentroaren bitartez, ikastetxeekin elkarlanean ariko da, premia bereziak dituzten ikasleendako eta gizarte-bazterketaren arriskuan direnendako arreta- eta jarraipen-mekanismoak garatzeko.

Helduen hezkuntzaren edo hizkuntzen irakaskuntzaren kasuetan, prestakuntza-jarduerak bide telematikotik jarraituko dute aurrera.

Lanbide Heziketaren esparruan, Departamentuaren konpromisoa da ikaskuntza-ingurune birtualetarako bitarteko teknikoak eta teknologikoak ezartzea, horien bitartez errazteko irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, ikasleen parte-hartzea eta haien jarraipena, ebaluazioa eta irakasleen lana.

Irakasleek beren lanaldia egoera horren arabera egokituko dute, lehentasuna emanez ikasleen arretari, beste edozein jardueraren gainetik (guardiak, tailer/laborategiak mantentzea, Lantokiko Prestakuntza orduak, eskola-ordutzat hartutako orduak...).

Irakaskuntza presentzialaren erabateko etetea Lantokiko Prestakuntzara ere hedatuko litzateke. Egoera horren salbuespena izanen lirateke, halakorik balitz, modalitate dualeko heziketa-ziklo bat ikasten ari diren ikasleak, lantokiko prestakuntzaren txanda egiten ari badira prestakuntzarako kontratu baten bidez; kasu horretan, enpresako prestakuntza lotuta egonen litzateke enpresaren beraren jarduerarekin eta funtzionamendu-araubidearekin. Halaber, salbuespena izan litezke enpresako jarduera bide telematikoetatik gauzatzeko ahal dituzten ikasleak, bi aldeak ados badira.

Egoera epidemiologikoak aukera emanaz gero, jantoki zerbitzua bermatuko da 6.7 fitxan xedatutakoarekin bat (jantokiak).

2. IKASMAILEN ETA ARLOEN PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA.

Programazio didaktikoak eta ebaluatzeko sistemak egokitu beharko dira, Planetik ematen diren argibideak aintzat hartuta, gerta litezkeen agertoki desberdinen arabera. Horregatik jotzen da beharrezkotzat curriculumaren ikuspegi holistikoago bat, ikasleen gaitasunak garatzeko aukera emanen duena, gaitasunen araberako ikaskuntzaren irizpidetik.

3. HORNIDURA TEKNOLOGIKOA.

Hornidura teknologikoari probetxurik onena ateratzeko, ikasturtearen hasierako egunetan, ikastetxearen plangintzaren arabera, irakasleek beraiek emanen dizkiete ikasleei baliabide teknologikoak era egokian erabiltzen ikasteko behar diren klaseak, beharrezkoa izan baitaiteke gerta daitezkeen agertoki desberdinei aurre egiteko.

Jarduera horien haritik bideratu behar da ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala lortzeko prozesuaren bultzada berri bat, horrek emanen duelako aukera arrakastaz heltzeko online bidezko irakaskuntzari, eta ziurtatzeko ikasleek ekipoa eta konexioa eskura dituztela.

4. GAITASUN DIGITALA INDARTZEKO PLANA.

Konpetentzia digitala indartzeko eta osasuna prebenitzeko plana Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusien ebazpenetan islatuko da. Ebazpen horien bidez, onetsiko dira Nafarroako Foru Komunitatean 2021-2022 ikasturtean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolamendua eta funtzionamendua arautuko dituzten jarraibideak, bai eta Lanbide Heziketako, Arte Plastikoetako eta Nafarroako araubide bereziko kirol-irakaskuntzenak ere.

5. URRUNEKO ESKOLA-JARDUERARAKO TUTORETZA PLANA

Ikastetxeko zuzendaritzak hainbat bilera antolatuko ditu, gerta litezkeen eta irakasleen jarduera eraldatuko luketen agertoki desberdinei aurre egiteko ezarri beharko liratekeen jarduketei buruzko informazioa emateko, eta horietan era berezian aintzat hartuko dira familiei eta ikasleei transmititu beharreko informazioari dagozkion gaiak. Bilera horiek, ahal izanez gero, irailaren 24a baino lehen egin behar dira.

6.- ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK.

Sarrera-irteerak eta joan-etorriak antolatzeari dagozkion neurriak, eta segurtasun- nahiz higiene-neurri orokorrak, ondoko fitxa hauetan zehazten dira.

6.0. MASKARAK ERABILTZEA

6.1. IKASLEEN SARRERA-IRTEERAK

6.2. IKASGELEN KUDEAKETA

6.3. BARNEKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA

6.4. JOLASTOKIAREN ETA JOLASALDIAREN KUDEAKETA

6.5. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA

6.6. GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

6.7. JANTOKIAK

6.8. GARRAIOA

6.9. IKASTETXEKO PERTSONEN KUDEAKETA

6.10. IKASTETXEKOAK EZ DIREN PERTSONEN KUDEAKETA.

6.11. **COVID-19AREN AURREAN KALTEBERAK DIREN PERTSONEI
ZUZENDUTAKO NEURRIAK.**

6.12. **JOKABIDEA COVID-19KASUBATEN AURREAN**

6.13. **COVID-19RAKO ERREFERENTZIAKOAK IZANEN DIREN
PERTSONEK ZERTAN LAGUNDUKO DIETEN IRAKASLEEI**

6.14. **GORPUTZ JARDUERAK ETA ESKULANAK**

6.15. **IRAKASKUNTZA ESPEZIFIKOAK**

6.0 MASKARAK ERABILTZEA

Pandemia-egoeran maskara erabiltzea neurri osagarri bat da, eta ez da ezartzen diren gainerako prebentzio-neurrien ordezkoa; neurri nagusiak beti errespetatu beharko dira, hala nola urruntze soziala, eskuen higiegi zorrotza, aurpegia, ahoa, sudurra eta begiak ez ukitzea, eta ez tul eta doministiku egitean aho-sudurrak estaltzea.

Maskararen erabilera ez da gomendagarria desgaitasuna edo menpekotasuna duten pertsonentzat, egoera horrek eragozten badie maskara kentzeko autonomoak izatea, edo beren portaeraren alterazioengatik, maskara era egokian erabiltzea ezinezkoa duten pertsonentzat.

[Ikasleen kasuan, maskaren erabilera Osasuneko kontseilariaren foru agindu baten bidez arautuko da.](#)

[Irakasleek maskarak nahitaez erabili beharko](#) dituzte ikastetxeko gune guztietan; erabili beharreko maskara mota Osasun Publikoko Institutuak zehaztuko du, Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin adostuta.

Eskola-garraioan nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea hiru urtetik gorakoentzat.


Hezkuntza Departamentuak lanpostu bakoitzerako egokiak diren maskarak eman dizkie ikastetxeei. Gainera, ikastetxeetan maskarak edukiko dira, ikasleei eman ahal izateko behar izanez gero edo ahaztuz gero.

Maskara erabiltzeagatik komunikatzeko gaitasuna indartzeko bitarteko gehigarriak erabiltzea beharrezkotzat jotzen duten irakasleek harremanetan jarri behar dute Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalarekin, kasua azter dezan.

Maskara jartzeko eta kentzeko jarraibideak

Maskara jartzeko eta kentzeko jarraibideak: maskara azal hutsaren gainean jartzea gomendatzen da (azala ukitzen duen tarteko ilerik gabe, eta, zenbaitentzat, bizarririk gabeko azalean), eta pausu hauek errespetatzea:

- Eskuak garbitzeko ura eta xaboa erabiltzea edo soluzio hidroalkoholikoarekin igurtzea, maskara manipulatu aurretik.



- Identifikatzea zein den maskararen goialdea.

MASKARA NOLA JARRI

1. JARRI MASKARA AURPEGIAN ETA SUDUR-PINTZA EGOKITU SUDURREAN



2. MASKARARI KANPOALDETIK HELDU ETA BURUKO LOKARRIA PASA, EDO ATZEAN LOTU, BELARRIEN BI ALDEETAN, GURUTZATU GABE



3. MASKARAREN BEHEKO ALDEA JAITSI KOKOTSERAINO. EGI AZTATU MASKARAK KOKOTSA ESTALTZEN DUELA



- 4. SUDUR-PINTZA BI ESKUEKIN ESTUTU SUDURRERA ONGI EGOKITZEKO**



- 5. EGIAZTATU MASKARA ONGI JARRITA DAGOELA. HORRETARAKO, BEHARREZKOA DA EGIAZTATZEA ZIGILATUA GELDITU DELA ETA ARNASA ONGI HARTZEN DELA.**
- 6. BEHIN DOITU ONDOREN, EZ UKITU MASKARA ESKUEKIN. ERABILTZAILEAK MASKARA UKITU BEHAR BADU, AURRETIK ESKUAK GARBITU BEHAR DITU UREZ ETA XABOIEZ, EDO SOLUZIO HIDROALKOHOLIKOAREKIN IGURTZI.**

MASKARA NOLA KENDU:

- 7. KOKOTSA GORA ERAMAN ETA MASKARARI LOKARRIETATIK HELDU**
- 8. MASKARA ERDITIK TOLESTU, KANPOALDEA UKITU GABE**
- 9. GOMENDATZEN DA MASKARA ZIP MOTAKO POLTSA BATEAN SARTZEA**

10. BERRIZ ERABILTZEKO, MASKARARI LOKARRIETATIK HELDU, POLTSA BARRUTIK UKITU GABE

Maskara erabiltzean eta/edo kentzean kutsapenik ez izateko, arau hauek bete behar dira:



1. Eskuak garbitu urez eta xaboiez edo soluzio hidroalkoholikoarekin, maskara jarri aurretik eta ondoren.
2. Behin jarri ondoren, ez ukitu maskara eskuekin.
3. Maskara kendu maskararen aurrealdea ukitu gabe.
4. Botatzekoa den maskara hondakinetarako ontzian jarri.
5. Eskuak garbitu urez eta xaboiez edo soluzio hidroalkoholikoarekin.

6.1. IKASLEEN SARRERA-IRTEEREN KUDEAKETA

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Lokalen eta materialen garbitasuna ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

- 1.- Ahal bezainbeste sarbide prestatzea, guztiak irakasleen kontrolpean.
- 2.- Harrera egiteko eta bidean laguntzeko ardura duten pertsonak beti maskara jarrita eramanen dute. Gel hidroalkoholkoa eta maskarak izanen dira, irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen eskura.
- 3.- Eremu/sektore/talde egonkor bakoitzaren sarrera eta irteera bideak seinaleztatuko dira eraikinetan. Esate baterako, solairuetara joateko eskailera bat baino gehiago izanez gero, solairu bakoitzeko sektoreei adieraziko zaie zein eskailera erabili behar duten eraikinean sartu eta bertatik ateratzeko. Ikasleek eta langileek jakin behar dute ikasgela edo bulego bakoitzera iristeko zein bide erabili behar duten.
- 4.- Pertsona arteko tartea gordetzen dela bermatuko da sartzeko ilaretan, bitarteko guztiak erabiliz, batez ere, lurrean markak jarrita eta informazio-paneletan adierazita zein diren sektore bakoitzean sartzeko atearak, ikastetxeko arduradunek ezarritakoaren arabera.
- 5.- Kanpoko eta barneko atearak irekita egonen dira, ikasleak sartzen ari diren bitartean. Ikasgeletako atearak egunean zehar irekita izaten saiatu behar da, eta hori ezinezkoa bada, irakasleak izanen luke ireki eta ixteko ardura, eta eskuak garbitu beharko lituzke ondoren.



- 6.- Sarrera eta irteera mailakatuak izanen direla bermatu behar da, ezin badira sarbide desberdinak ezarri.
- 7.- Familiei jakinarazi behar zaie zein diren iristeko ordutegiak eta sarrera-irteera guneak, ateetan pilaketak izatea saihestearren.
- 8.- Sarbidea galarazi behar zaie, edo ahal den gehien murriztu, ikastetxekoak ez diren pertsoneri.
- 9.- 1. egoeran, ahal dela, familiekiko bilerak telefonoz edo modu telematikoa eginen dira, salbu eta ikasturte hasierako bilera, zeina modu presentzian eginen baita, osasun-egoerak horretarako aukera ematen badu, eta, ikasle bakoitzeko gehienez ere lege ordezkari bakar bat bertaratuz.
- 10.- Antolatu behar da ikasleek, ikasgeletara sartu aurretik, eskuak garbitzea, ahal bada ura eta xaboia erabiliz. Gel hidroalkoholikoa ere eskura izanen da.
- 11.- Bizikidetzatalde egonkorren kasuan, ezinbestekoa da gainerako ikasleekiko interakzioa galaraztea.

6.2. IKASGELEN KUDEAKETA

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Airearen kalitatea ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

1.- Ahal dela, ikaspostuak paretetatik hurbil jarri behar dira. Altzarien banaketak ez du aukerarik eman behar ikasleak aurrez aurre jartzeko.

2.- Oro har, ahal dela gutxienezko 1,5 metroko tartea gorde behar da lehenbiziko lerroaren eta irakaslearen lan-eremuaren artean (arbela, pantaila, arbel elektronikoa, etab.). Mahaiak ikasgelako atetik urruntzen saiatu behar da.

3.- Haur Hezkuntzako bizikidetzatalde egonkorretan izan ezik, ikasle bakoitzak, oro har, ikaspostu finko bat izanen du esleitua, bai ikasgela arruntean, bai banaketa geletan eta berariazko geletan.

Talde bakoitzeko tutoreak gainerako irakasleekin koordinatuko du ikasleen banaketa, bai erreferentziako gelan, bai gainerako geletan (banaketa gela eta berariazkoak). Balizko kontaktu estuen bilaketa errazteko, tutoreek inplikaturako irakasleei, zuzendaritza-taldeari eta familiei emanen dizkiete ikasgelaren antolaketaren planoak, ikasle bakoitza bere tokian identifikatuta.

4.- Erabiliko ez diren altzariak kendu edo, bestela, seinalatuko dira.

5.- Ikasgelako mugimendua mugatu behar da, irakasleak ikasleengana hurbiltzea barne.

6.- Seinalaz markatuko da ikasgela barneko zirkulazioaren norabidea, ikasleak aurrez aurre topatzea saihesteko.

7.- Berriazko gelak ahal den gutxien erabiliko dira, eraikinaren barneko mugimenduak ahal den gehien mugatzeko.

8.- Bizikidetzatalde egonkorren kasuan, ikasgela barneko zirkulazio librea errespetatuko da. Segurtasun-tartea gordetzea ere ez da nahitaezkoa izanen talde horietako kideen artean.

9.- Haur Hezkuntzan:

Haurrek ez dute jostailurik edo bestelako gauzarik eraman behar ikastetxera.

10.-Ikasgelak aireztatzea:

1. Oro har, lanaldiaren hasieran eta amaieran gutxienez 10-15 minutuz aireztatu behar da gela, aireztapen gurutzatuaren bidez, eta geletako leihoak eta ateak ahalik eta gehien irekitzen saiatu behar da.

2. Eguraldia txarra denean, ez da beharrezkoa gela egunaren hasieran aireztatzea, aurreko egunean behar bezala aireztatu bada; izan ere, barneko airearen kalitatea egokia izanen da eta tenperatura ere behar bezalakoa izanen da.

3. Eskolak ematen diren bitartean, geletako kanpoko leihoak itxita egon daitezten saiatu behar da, eta korridorera ematen duten ateak irekiko dira. Ikastetxeetako korridoreetako leihoak eta gela amankomunetakoak irekita egon beharko dute. Hala, korridoreek ikastetxeetako airearen barne-kalitatea erregulatzea lortu nahi da, ikasgelen barneko tenperatura hainbeste hoztu gabe. Dena den, korridoreetan leihorik ez duten ikastetxeetan, aireztapena erregulatzen saiatzeko, irekita utziko da ikasgelako atea, eta erdi irekita, berriz, ikasgelako leihoetako bat. Saihestu beharko dira ikasleei edo irakasleei zuzenean eragiten dieten korrante gurutzatuak.

4. Eskolen arteko uneetan leihoak erabat irekiko dira bost minutuz edo, barneko airea berritzeko.

5. Jolasaldian, ikastetxeko espazio guztien aireztapen gurutzatua egin behar da lehenbiziko 10-15 minutuetan eta, ondoren, leihoak itxi, tenperatura erregulatzeko ikasleak ikasgeletara itzultzen direnerako.

6. Lanaldiaren amaieran, ikastetxea behar bezala aireztatu behar da, aireztapen gurutzatua erabiliz gela guztietan gutxienez 10-15 minutuz.

7. Egunero, berokuntza behar bezain goiz pizten saiatu beharra dago, ikasgeletan tenperatura egokia egon dadin eskolak hasterakoan.

8. Kanpoko tenperatura dela eta, kanpoko leihoak gehiago irekitzen ahal badira, leihoak maizago ireki ahal izanen dira, baldin eta horrek sortzen ez badu ikasgelako erabiltzaileen osasuna arriskuan jartzeko moduko aire-korrante handirik eta ziurtatzerik bada barneko tenperatura eroso dela. Eragotzi behar ditugu COVID-19arekin zerikusirik ez duten arnasbideetako gaixotasunak.

9. 2008az geroztik eraikitako ikastetxeetan, aireztapen mekanikoak bermatu dezake airearen kalitatea; hortaz, aireztapen naturala baliabide lagungarria besterik ez da izanen, eta askoz ere modu mugatuagoan erabili beharra dago. Instalazio horiei eta haien eraginkortasunari buruzko zalantzarik izanez gero, Azpiegituren Zerbitzuarekin harremanetan jartzen ahal zarete (infraestructuraseducativas@navarra.es).

Espazio bakoitzerako neurri egokiak hartzen lagundu ahal izateko, Hezkuntza Departamentuak CO2 neurgailuak eman dizkie ikastetxeei, eta zuzendaritza-taldeei prestakuntza eman die horiek erabiltzen jakiteko, bai eta datuak interpretatzen jakiteko ere. Neurgailu horiek hainbat egunez jarri behar dira erabilera jarraituko espazioetan, oro har, eta gehiago erabili behar dira balio okerrenak dituzten ikasgeletan.

6.3. BARNEKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Lokalen eta materialen garbitasuna ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

1.- Zirkulazioaren norabidea seinalatuko da pasabideetan eta eskaileretan. Eskailerak norabide bakarrean erabiliko dira, ahal bada. Beharrezkoa bada, norabide desberdinak erabiliko dira sartzeko, ateratzeko eta jolasaldiko ordutegietan eta gainerako eskola-ordutegietan.

2.- Seinale sistema ulerterraza erabiliko da.

3. Arau orokorra izanen da kanpoko ateak irekita egotea, ateetako eskulekuak ukitu behar ez izateko. Jarraibide hori ez da beteko suteen aurkako arautegiaren kontrakoa bada.

4.- Ikasgela eta bulegoetako ateak irekita egonen dira, ahal bada. Ezinezkoa bada, ateak ireki eta ixten dituen pertsonak higiene-arauak bete behar ditu.

5.- Ikasgelara sartzeko ate bat baino gehiago egonez gero, denak erabiliko dira, ikasleek beren ikasmahaitik hurbilen duten atea erabil dezaten, sartu nahiz ateratzean.

6.- Oinarrizko segurtasun-tartea gorde behar da beti pasabideetan, eskaileretan, komunetan eta eremu komunetan.

7.- Irakasleek eta ikasle guztiek maskara jantzita eraman beharko dute eraikineko toki batetik bestera mugitzen direnean, salbu eta Osasuneko kontseilak emandako foru aginduan aurreikusitako kasuetan.

8.- Ahal bada, helduak izanen dira eraikinean barna joan-etorrian ibiliko direnak, eta ikasleak ahal den gutxien mugituko dira.

9.- Hezkuntza Bereziko ikasleen kasuan, ikastetxean joan-etorrian ibili behar dutenean, beste taldeen joan-etorriekin batera ez elkartzeko ordutegia eta antolaketa zehaztuko dira, ikasle horiek babesteko.

6.4. JOLASTOKIAREN ETA JOLASALDIAREN KUDEAKETA

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Lokalen eta materialen garbitasuna ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

1.- Sektore, etapa, maila, ikasmaila nahiz ikasgela desberdinetako ikasleen arteko gurutzatzeak saihestuko dira:

- a) Jolasaldia mailakatua izanen da.
- b) Jolasaldiaren denbora egokitu edo murriztuko da, ikastetxearen behar espezifikoaren arabera.
- c) Sektore edo talde egonkor desberdinetako ikasleak elkartzea saihestuko da.
- d) Ikasleen banaketa sektoreka antolatzeko seinaleak erabiliko dira.
- e) Ikasgelatik ateratzean eta hara itzultzean segurtasun-tartea gordetzen dela bermatuko da.
- f) Taldeen sarrera-irteeren zirkulazioa antolatzeko bermatuko da segurtasun-tarteak gordetzen direla, eta saihestuko da bi norabideko joan-etorriak batera egitea pasabideetan eta eskaileretan.
- g) Gomendatzen da, ahal den guztietan, hamaiketako aire zabalean jatea, ikasgelatik kanpo. Ikasgela barnean jan behar bada, arreta handia jarri behar zaio gelaren aireztapenari.

2.- Langileek eta ikasle guztiek maskara jantzita eramanen dute jolastokira joan eta handik ateratzeko joan-etorrietan.

3.- Jolasaldietako zaintza indartu behar da.

4.- Jolasaldia antolatzea gomendatzen da, behar bezala zainduz gero posible delako kontaktu- eta baloi-jokoetan aritzea edo objektu-trukeak egitea.

5. - Bankuak, altzariak, jokoak eta abar markatzeko sistema bat aurreikusi behar da, osasun agintariak hala agintzen badute horiek erabil ez daitezen.

6.- Salmenta-makinen erabilera saihestu behar da, ezin bada bermatu aldiro garbitu eta desinfektatzen direla.

7.- Haur eta Lehen Hezkuntzan, eguraldiak ez badu ematen kanpoko jolastokia erabiltzeko aukerarik eta ikastetxeak ez badu bestelako leku egokirik, ikasleak gelan geldituko dira, azken klasea eman dien irakaslearekin. Kasu horretan, ikasgela aireztatua mantentzen saiatu behar da jolasaldian.

8.- Bizikidetzatalde egonkorak:

Bizikidetzatalde egonkorak jolastokian daudenean, beren taldekideekin bakarrik egonen dira, eta bermatu behar da talde horien artean behar adinako tartea gordetzen dela, talde desberdinen arteko kontaktua saihesteko.

Bizikidetzatalde egonkorren arteko urruntzea eta ikastetxeko gainerako ikasleekiko lagun arteko tartea errespetatzeko, atsedenaldiak mailakatuta egingen dira egunean zehar.

6.5. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Lokalen eta materialen garbitasuna ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

Komunen barruan dauden pertsonen kopurua mugatuko da, segurtasun-tartea bermatzeko.

Ikasleen komunerako joan-etorriak kudeatuko dira (ikasgelatik atera eta ikasgelara itzuli).

Konketak eta pixatokiak, bitik bat itxiko dira, tarteka, erabiltzaileak hurbil egon ez daitezten. Manpara bidez bereizitako kabinak (horma lurzoruan edo sabaian itxi gabe) ere bitik bat itxiko dira.

Komunen okupazioa (libre/okupatuta) kartelen bidez adieraziko da, barrualdean edo sarbideetan segurtasun-tartea betetzen dela ziurtatzeko.

Komunak maiz aireztatuko dira.

Ikasleei azalduko zaie eskuak garbitzea nahitaezkoa dela komunak erabili aurretik eta ondoren.

Xaboi likidoaren eta eskuak lehertzeko paperaren hornidura egokia ziurtatuko da. Azaldu behar da hobe dela eskuak paperez lehortzea lehorgailua erabiltzea baino. Ez da eskuoihalik erabiliko erabat ezinbestekoa ez bada, eta kasu horretan, erabiltzaile bakarria izanen dute.

Egunean hiru aldiz garbituko dira komunak, eta maiz desinfektatuko dira espazio eta gainazal horiek; paperontziak tapakia pedalaz irekitzekoak izatea gomendatzen da, ukipena saihesteko.

Komunen erabilera mugatua izanen da ikastetxetik kanpoko pertsonentzat eta, behar izanez gero, ikastetxeko langile eta ikasleek erabiltzen ez dituzten komunak eskainiko zaizkie, ahal bada.

6.6. GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Lokalen eta materialen garbitasuna ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

Ohiko garbiketa:

Garbiketak germen, zikinkeria eta zaborrak kentzen ditu, eta desinfekzioak, berriz, germenak hiltzen ditu gainazal eta gauza horietan. Horregatik, oso garrantzitsua da ongi garbitzea desinfektatu baino lehen. Desinfekzioa beti garbiketako langileek egin behar dute.

Garbiketa-lanetan, arreta berezia jarriko da erabilera komuneko eremuak eta gehien ukitzen diren gainazalak eta gauzak garbitzean, hala nola ateetako eskulekuak, mahaiak, aulkiak, altzariak, eskudelak, lurzoruak, jostailuak, elementu informatikoak eta antzeko ezaugarriak dituzten elementuak.

Materialak prestatzeko, familiei arreta emateko, gizarte zerbitzuetarako eta abarretarako erabili diren lokalak garbitu behar dira aurrerago zehazten den garbiketa sakonagoko protokoloaren arabera.

Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak erabiltzeko irizpideak:

Ez da egin behar desinfektatzeko lanik ikastetxeko ikasleak edo langileak bertan daudelarik. Garbitasunaren eta espazioen erabileraren artean utzi beharreko denbora-tarteak errespetatu behar dira.

Maiztasuna

Ikastetxeetan, instalazioen garbiketa eta desinfekzioa gutxienez egunean behin egingen dira, eta gehiagotan egingen dira, behar izanez gero, erabilera handiko espazioetan.

Arreta berezia jarri behar da erabilera komuneke eremuak eta gehien ukitzen diren gainazalak garbitzean, besteak beste, ateetako eskulekuak, mahaiak, altzariak, eskudelak, lurzoruak, telefonoak, esekigailuak, fotokopiagailuak, ordenagailuak eta antzeko ezaugarriak dituzten elementuak.

Espazio bakoitzaren sarreran (ikasgelak, laborategiak, bulegoak, komunak, etab.), ontzi bat gel hidroalkoholiko izanen dute eskura ikastetxeko ikasleek eta langileek, hara sartzean eskuak garbitzeko.

Ikasleek saiatu behar dute elementu komunak (ate-leihoetako eskulekuak, eskudelak, etab.) ahalik eta gutxien ukitzen. Horretarako, atea irakasleak ireki behar ditu, ikasgelara sartzeko eta ateratzeko. Ikasleek ez dute leihorik ez ireki, ez itxi behar ere.

Kontrola

Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak egiaztatu beharko du badagoela instalazioak egunero garbitzeko plan bat eta garbiketaz arduratzen diren profesionalek egunero betetzen dutela. Zerbitzuan anomaliak antzemanaz gero, horiek garbiketako arduradunei edo eraikinaren titularrari jakinarazi behar zaizkie: udalak, ikastetxe publikoen kasuan, eta Hezkuntza Departamentua, gainerako ikastetxeetan.

6.7. JANTOKIAK

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Lokalen garbiketa eta desinfekzioa ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

Jantokian txanda desberdinak ongi antolatu behar dira, sartu eta ateratzeko uneetan itxoiteko ilara luzeak eta ikasleak gurutzatzea saihesteko. Sartzeko eta ateratzeko ordutegiak zehaztuko dira, ibilbideak seinalez markatuko dira eta behar den lekuan hesiak jarriko dira. Garrantzitsua da bizikidetzatalde egonkor desberdinetako ikasleen arteko distantzia fisikoa **1,5 metrokoa izatea eremu osoan**. Material kolektiboaren erabilera (erretiluak, mahai-tresnak, pitxerrak, etab.) testuingurura egokitu behar da, kontaktuak ahalik eta gehien mugatzeko.

Jantokiko zerbitzuaren antolaketa berri horretan, espazio erabilgarria murriztu eta ikasleen arteko interakzioa ahal den gehien murrizten denez, ez da hara sartzen utzi behar inongo objektu pertsonalik (motxilak, baloiak, zamarrak, etab.).

Era horretan prestatutako espazioan ezinezkoa balitz otorduen zerbitzua eskaintzea, zerbitzua ikasgelan antolatu daiteke, pertsona heldu baten zaintzapean.

Txanda bat baino gehiago dituzten jantokietan, aukera bat izan daiteke Haur Hezkuntzako ikasleekin egitea lehenengo txanda, gainerakoekin hasi baino lehen. Era horretan, beste txanda bat gehitu daiteke besteen aurretik.

Otorduaren aurretik eta ondoren eskuak garbitzea antolatu behar da. Ikasleen harrera mailakatua egitea gomendatzen da, komunetan eskuak urez eta xaboiez garbitzeko pilaketarik ez izateko.

Ikasleren bati jaten lagundu behar bazaio, langileak babes-maskara jantzi beharko du, eta eskuen garbitasunerako zehaztutako arauak bete beharko ditu.

Jantokiko bi txanden artean garbiketa eta desinfekzioa egin behar da. 15 minutu inguru beharko dira horretarako, eta nahitaezkoa izanen da kontaktu-elementu guztiak higienizatzea.

Enpresak zehaztuko du zein den erabili beharreko produktua (birusari aurre egiteko eraginkorrak diren biruzida baimendu eta erregistratuetakoa bat izanen da), Osasun Ministerioak ezarritako irizpideen arabera.

Jantokia aireztatu behar da txanden artean eta zerbitzua eman ondoren, ikasleak iritsi baino 10 minutu lehenago, gutxienez.

Janariaren eta uraren banaketa aurreikusi behar da, kontaktuak saihesteko.

Ikasleei etengabe gogorarazi behar zaie segurtasun-tartea eta hesi-keinuak errespetatu beharra, otorduaren aurretik, bitartean eta ondoren. Behin eta berriro errepikatu behar da ezin dela partekatu ez urik, ez janaririk, ez tresnarik, etab.

Ezin dira erabili mikrouhin kolektiboak, dieta berezietarako ez bada, eta betiere zerbitzuaren ardura duen pertsona bakar batek erabilita.

Ezinbestekoa bada erabilera komuneko txorrota edo iturriak baliatzea ura banatzeko, beharrezkoa izanen da gel hidroalkoholikoa izatea, horiek erabili aurretik eta ondoren desinfektatzeko.

Ikasleek zaintzaile bat izanen dute izendatua, eta horrek zainduko ditu, bai elikadurarako instalazioetan, bai atsedendian eta jolasaldian (aurretik eta/edo ondoren).

Bizikidetza-talde egonkorrak:

Ikasleak bizikidetza-talde egonkorretan antolatuak egonen dira jantokian, eta bermatu behar da talde horien artean behar adinako tartea gordetzen dela, talde desberdinen arteko kontaktua saihesteko.

Bizikidetza-talde egonkorren arteko urruntzea eta ikastetxeko gainerako ikasleekiko lagun arteko tartea errespetatzeko, txanda bat baino gehiago egiteko aukeraz gain, bitarteko fisikoak ere erabiliko dira (manparak, seinaleak, balizak, etab.).

Kontaktuen jarraipenak errazteko, ikasleak beti toki berean eseriko dira jantokian.

Hiru urteko ikasleak:

Siestarako, gomendatzen da koltxonetak bi metroko tartea utziz jartzea, eta ikasleen jarrerara tartekatzea (burua eta oinak alde batera batek, eta bestera hurrengoak). Haur bakoitzak bere maindireak eta burukoa erabiliko ditu, eta astero berritu beharko ditu, edo maizago, zikinduz gero.

Lanaldi jarraitua eskolaz kanpoko jarduerekin ezarriz gero, edo ikastetxe bakoitzean ezarritako aurreko lanaldira itzuliz gero: zatitua, malgua edo jarraitua. Jantoki gisa erabiltzeko beste espazio batzuk gaitzen ahalko dira, jantoki-zerbitzua eskatzen duten ikasle guztiek tokia izan dezaten eta protokolo honetan ezarritako neurriak bete daitezen.

Jantoki zerbitzua mantentzea ikasleen konfinamenduan eta bakartzean:

Egoera epidemiologikoak aukera emanez gero, osasun agintaritzaren oharretan oinarrituta, ikasleek etxean konfinatuta edo bakartuta gelditu behar dutela erabakitzen denean, horientzako jantoki zerbitzua bermatuko da, baina jantokia erabiltzen duten familiek ikastetxeari abisatu behar diote, beren seme-alaben eskolako otordua hartzera joateko horretarako ezartzen den ordutegian, konfinamenduak edo bakartzeak iraun bitartean, ohiko baldintza ekonomikoekin.

2. egoeran (ikastetxeak ixten direnean) ikastetxean jantoki zerbitzua mantentzerik ez badago, egoera ekonomiko ahulean dauden familietako ikasleei, jantokiko laguntzarako eskubidea aitortua baldin badute, elikadura txartelean sartuko zaie epe horretan zegokien jantokiko laguntzaren dirua.

6.8. GARRAIOA

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Maskarak nahitaez erabiltzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Ibilgailuen garbiketa eta desinfekzioa ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

3 urteko haurrentzat eta adin horretatik gorakoentzat nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea eskola-garraioan. Maskara erabiltzea ez da derrigorrezkoa izanen hiru urtetik beheitiko ikasleentzat, edo maskara kentzeko autonomoak izatea eragozten duen ezgaitasuna edo menpekotasuna izateagatik maskararik erabili ezin dutenentzat, edo maskara era egokian erabiltzea ezinezko egiten duten portaera-aldaketak dituztenentzat. Ikasle horiek garraio ibilgailuetan banatuko dira, halako moduan non betetzen ahalko diren elkarrengandik urruntzeko neurriak.

Antolatu egin behar da ikasleen ibilgailu barneko banaketa, adinak tartekatuz interakzio fisikoak mugatzeko; horretarako, Haur Hezkuntzako ikasleak ikasle zaharragoekin tartekatuta jarriko dira. Banaketa hori autobuseko begiraleek egingen dute, kontuan izanda ikasle bakoitzaren izaera biziagoa edo apalagoa.

Miaketa errazteko, ikasleak leku berean eseriko dira beti.

Autobus geltokian segurtasun-tarteak gordez itxaron behar da, eta ordenan ere bai, autobusera aurreko atetik ilaran igotzeko. Aurreikusitako banaketari jarraikiz eseriko dira autobusean, atzekoak lehenik eta ondoren aurrekoak. Jaistea, berriz, kontrako hurrenkeran egingen da, aurreko eserlekuetatik hasita, pilaketarik gabe, eta autobuseko pasabidera ateraz lasai, jaisteko txanda iristen zaienean.

Jarritako ordutegietan kontuan izan behar da denbora gehiago beharko dela geltoki bakoitzean autobusera igotzeko eta jaisteko, pilaketak saihestea baita helburua, eta

denbora horiek doitu beharko dira ibilbide osoarekin; gainera, eskola-garraioa erabiltzen duten ikasleen sarrerek eta irteerak ere lehentasunezkoak izanen dira ikastetxeak mailaka sartzeko eta ateratzeko antolatzen duen banaketan.

Autobusean sartzekoan, begiraleak hidrogelaren banagailu bat izanen du eskura, ikasle bakoitzaren eskuak desinfektatzeko. Zaintzailerik ez duten hezkuntza etapetan, hidrogelaren banagailua automatikoa izanen da.

Ibilgailuaren garbiketa egin behar da Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren errepideko bidaiarien garraio publikoa garbitu eta desinfektatzeko Protokoloak ezartzen duen bezala.

Ordu txanda ezberdinetan 2 edo 3 bidaia egiten dituzten garraioek ibilgailua aireztatu beharko dute 10 bat minutuz, ibilbide batetik bestera; hutsik doazen bitartean ere aireztatu dezakete.

6.9. IKASTETXEKO PERTSONEN KUDEAKETA

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Lokalen eta materialen garbitasuna ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

Ikastetxeko pertsonatzat hartzen dira irakasleak, ikasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta garbiketako langileak.

Ikastetxeko pertsonak uneoro beteko dituzte COVID-19ari aurre egiteko prebentzio neurrietan jasotzen diren prebentzio neurriak; zuzendaritza taldeak jakinaraziko dizkie horiek, edo, garbiketa kanpoko langileek egiten badute, haien enpresak.

Neurri osagarri gisa, honako jarraibide hauek beteko dira:

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Eskularruak erabiltzea saihestu behar da, ohiko baldintzetan erabiltzen direnean izan ezik (garbiketa); ziurtatu behar da eskuak era egokian eta maiz garbitzea.

Ikastetxe bakoitzeko jarraibideak aintzat hartzea.

Esleitu zaizkion lan-eremuak errespetatzea (sektoreak, ikasgelak, bulegoak...).

Lokal partekatuetan (departamentuak, bilera-gelak...) beti leku berean esertzen saiatzea.

Materiala partekatzea saihestea (ordenagailuak, bulegoko materiala, etab.) eta, hala eginez gero, erabili aurretik eta ondoren desinfektatu behar dela kontuan izatea.

Barneko joan-etorriak saihestea, ezinbestekoak ez badira.

Eremu komunetan (irakasle-gelak, departamentuak, etab.) egoteko ordutegiak mailakatzea, bertan elkartzen direnen kopurua mugatzeko eta urruntze fisikoko neurriak errespetatzea errazteko. Halaber, espazioen aireztapen egokia bermatu behar da.

Irakasle-gelan espazio bera esleitzea beti irakasle bakoitzari. Egun berean espazio bera partekatu behar badute irakasle batek baino gehiagok, irakasle-gelatik ateratzean garbitu egin behar da.

Ikasleak iritsi aurretik, langile guztiek izan behar dute eskola-jarduera presentziala hasi orduko hartuko diren neurriei buruzko informazioa. Gai hori tratatuko da ikasturte hasierako klaustroan, ikasleei harrera egin aurretik.

Publikoari begira lan egiten duten langileak: atezainak eta idazkariak

Langile horien eta ikasleen eta bisitarien arteko urruntze fisikoa bermatzea (bisitak ahal den gehien mugatuko dira).

Lan egiteko espazioek urruntze fisikoko arauak errespetatzeko modukoak izan behar dute.

Gel hidroalkoholikoko dosifikatzaileak eskura izan behar dira lanpostuan, dokumentazioa edo bestelako objektuak trukatzeko direnerako.

Langileentzako lokalak:

Irakasle-gela eta bilera-gelak

Aulkiak gutxienez 1,5 metroko tarteetan ezarriko dira, eta ez dira eseriko aurrez aurre, segurtasun-tartea gorde gabe.

Maiz aireztatu behar dira bilera-gelak, irakasle-gelak, bulegoak, departamentuak...

Aukera den guztietan, atek blokeatuko dira zabalik gera daitezen.

Gel hidroalkoholikoko dosifikatzaileak eskura izan behar dira bilera-mahaietan, dokumentazioa edo bestelako objektuak trukatu ondoren erabiltzeko.

Bulegoak

Apalategietatik kendu behar dira apaingarri guztiak, eguneroko garbiketa-lanak errazteko.

Languneak maiz aireztatu behar dira.

Bulegoa partekatua bada, aurrez aurre esertzea saihestu behar da, eta ezarritako segurtasun-tartea gorde.

Beste bulegoetara joatea saihestu behar da.

Pertsona bakoitzaren ardura da bere lanpostua baldintza osasungarrietan mantentzea. Irizpide horretatik, profesional batek arreta ematen badie espazio berean ikasle desberdinei, elkarren segidan (fisioterapia, logopeda...) erabilitako gainazalak garbitu behar dira eta gela aireztatu, gutxienez 5 minutuz, saio bakoitzaren ondoren.

Erabilera komuneko materialen garbiketa eta desinfekzioa zaintzea (inprimagailuak, fotokopiagailuak, etab.).

Gel hidroalkoholikoko dosifikatzaileak eskura izan behar dira lanpostuan, dokumentazioa edo bestelako objektuak trukatzeko direnerako.

6.10. IKASTETXEKOAK EZ DIREN PERTSONEN KUDEAKETA

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Aireztapen egokia.

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea (nahitaez erabili behar da maskara).

Lokalen eta materialen garbitasuna ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

Jarraibide orokorrak:

Ahal den gehien mugatuko da ikastetxeako ez diren pertsonen presentzia, ikastetxeako pertsonatzat hartuz irakasleak, ikasleak, administrazioko langileak, mantentze-lanetakoak eta zerbitzu orokorretakoak (atezainak eta garbitzaileak).

Ezin izanen dira ikastetxera sartu COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak, ezta eritasuna diagnostikatu zaien pertsonak ere, agindutako bakartze aldia bukatu ez badute, edo etxeko berrogeialdian dauden pertsonak, COVID-19aren sintomak edo diagnostikoa izan duen pertsonaren batekin kontaktu estua izan dutelako.

Transmisioaren prebentziorako neurri nagusiak, ikastetxera sartzen diren pertsona guztientzat:

- Eskuak garbitzea maiz eta tentu handiz, gutxienez 40 segundoz.
- Arnas-etiketa:
 - Sudur-ahoak estaltzea zapi batez eztul edo doministiku egitean, eta ondoren zapia zaborrontzira bota, hobe tapakia eta pedala duen ontzia bada. Zapirik ezean, ukondoaren barneko aldea erabiliko dugu ahoa estaltzeko, eskuak ez kutsatzeko.
 - Begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzea.
- Lagun arteko 1,5 metroko tartea gordetzea.

Ikastetxera sartzan diren pertsona guztiek, barruan diren bitartean, maskara erabiliko dute, osasun agintariek eman eta indarra duten gomendioei jarraikiz.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Modu ikusgarrian erakutsiko dira pertsona horientzako jarraibideak: ibiltzeko diren espazioak eta norabideak, erabili behar dituzten komunak, igogailuak erabiltzeko debekua (salbuespenak salbu), babes-neurriak eta abar.

Saihestu behar da ikastetxekoak ez diren pertsonak materiala partekatzea (ordenagailuak, bulegoko materiala, etab.) haien artean edo ikastetxeko pertsonekin; hala eginez gero, kontuan izan behar da erabili aurretik eta ondoren desinfektatu behar dela.

Eragotzi behar da ikastetxekoak ez diren pertsonak joan-etorrian ibiltzea ikastetxe barnean, ezinbestekoa ez bada.

Gurasoen edo legezko erantzuleen arreta

Ahal den guztietan, familien arreta leku irekian egingen da, edo leku aireztatuan, betiere segurtasun-tartea gordez. Aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da.

Eremu komunetan egoteko ordutegiak mailakatzea, bertan elkartzen direnen kopurua mugatzeko eta urruntze fisikoko neurriak errespetatzea errazteko.

Gel hidroalkoholikoko dosifikatzaileak eskura izan behar dira lanpostuan eta ikastetxekoak ez diren pertsonak ibil daitezkeen lekuetan, dokumentazioa edo bestelako objektuak trukatzan diren kasurako.

Lehentasuna emanen zaio telefono edo telematika bidezko arretari.

Banatzaileak:

Produktua ikastetxean entregatu behar denean ziurtatu behar da banatzaileek aldez aurretik ikastetxera abisatzen dutela, eta paketea atezaintzaren aurrean uzten dutela, ezarritako urruntze- eta osasun-neurriak aplikatuz.

Higiene pertsonaleko neurriak zorrotz zainduko dira paketeak erabiltzean. Paketeak jaso ondoren beti eskuak garbituko dira. Neurri horien osagarria izan daiteke eskularruen erabilera, etiketan ezaugarri hauek dituztela zainduta (EN ISO 374-5:2016 VIRUS). Eskularruak jartzea, kentzea eta botatzea segurtasunez egingen da, Osasun Mi-



nisterioaren jarraibideak betez.

6.11. JOKABIDEA COVID-19AREN AURREAN KALTEBERAK DIREN PERTSONEN KASUAN

Langileak COVID-19aren aurrean kalteberak izatea eragiten duten egoerak hauek dira: eritasun kardiobaskularrak dituzten pertsonak, hipertentsioa barne, biriketako eritasun kronikoa, diabetesa, giltzurrunetako gutxiegitasun kronikoa, immunodepresioa, minbizia tratamendu aktiboko fasean, gibekeko eritasun kroniko larria, obesitate morbida (IMC>40), haurdunaldia eta 60 urtetik goitikoak.

Langile horiek lanera itzultzen ahalko dira, beren egoera klinikoa kontrolatuta badago eta aukera ematen badu, eta babes-neurriak zorrotz betez.

Zalantzarik izanez gero, langileak kontaktuan jarri behar du Laneko Arriskuen Prebentzioko Sekzioko osasun-langileekin: (seccion.prevencion.educacion@navarra.es); telefonoak: 848.42.37.69/848.42.37.28.

LAPZko osasun-langileek ebaluatu behar dute SARS-CoV-2 koronabirusaren infekzioaren aurrean bereziki sentiberak diren langileen presentzia, sentiberatasun berezi horren izaera ezarri eta txostena eman, prebentzioko, egokitzapeneko eta babesekeko neurriak zehazteko. Horretarako, kontuan izan behar da ea baden, hala ez, baldintzarik, langile horiek lan egin dezaten, beraien osasunari dagokion arriskua handitu gabe.

Prebentzio Atalak jakinaraziko dizkie langileari eta ikastetxeko ardura duen pertsonari langile hori bere lanpostura itzultzeko edo bertan jarraitzeko hartu beharreko neurriak. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ikastetxeetako arduradunekin elkarlanean arituko dira prebentzio-neurriak ezartzeko.

6.12. COVID-19 KASUEN KUDEAKETA IKASTETXEETAN

Ohar orokorrak:

- Uneoro segurtasun-tarteak gorde behar dira eta, ezinezkoa delarik, Hezkuntza Departamentuak emandako norbera babesteko ekipamenduak erabili behar dira, osasun agintarien irizpideei jarraikiz.
 - Temperatura berriazko gela horretara bideratu diren pertsoneri bakarrik hartuko zaie. Ezin da inoiz orokortu temperatura hartzea COVID-19a prebenitzeko neurri gisa.
 - Ikusten bada sintomekin hasi den pertsona egoera larrian dagoela, edo arnasteko zailtasuna duela, 112ra deitu behar da.
 - Gogoratu behar da pertsona bakoitzari dagokion osasun zentroa bizitokiaren araberakoa dela, eta beharbada, ez dela ikastetxeari dagokion zentro bera.
- Ezin da ikastetxera itzuli norberari dagokion medikuak alta eman arte. Era berean, ez da ikastetxera etorri behar infekzio-sintomarik izanez gero: sukarra, eztula, ongieza, eta kasu baten kontaktu estua izan eta berrogeialdia egin behar bada.

Jarraibide orokorrak:

Ikasleek EZ dute ikastetxera joan behar:

- Infekzio-sintomarik badute: sukarra, eztula, ongieza.
- Kasu baten kontaktu estua izan eta berrogeialdia egin behar badute.

Kasuen kudeaketa

Ikastetxean, eta gaur egungo testuinguruan, kasuen detekzio goiztiarra eta haien bakar-tzea, bai eta kontaktu estuena ere, segurtasun-inguruneari eusteko eta hezkuntza- eta pedagogia-helburuak lortzeko neurririk garrantzitsuenetakoa da.

COVID-19 kasuak osasun agintariak ezartzen duten prozeduraren arabera kudeatuko dira ikastetxeetan. Prozedura hori web orri honetan argitaratuko da: www.educacion.navarra.es.

Ikastetxeko irakasleen eta irakasle ez diren langileen kasuak kudeatzea.

Sintomak ikastetxean sumatzen dituzten langileek espazio bereizi batera erretiratu behar dute, eta harremanetan jarri beren medikuarekin. Larritasun-kasuetan, larrialdiko arreta duen osasun-zentro batera joan beharko dute.

Irakasleen eta irakasle ez diren langileen kasu positiboak ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaizkio Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalari, edo, hala badagokie, dagozkien prebentzio zerbitzuei, eta horiek lagunduko dute kasuen kontaktu estuak identifikatzen, eta agerraldi bat izanez gero, berehala eginen dute ikerketa, haren kudeaketa egokia bermatuz.

Erreferentziako kontaktuak:

- a) Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuen Prebentziorako Atala:

Posta elektronikoko helbidea: seccion.prevencion.educacion@navarra.es

Telefonoa: 848 42 37 69/28

- b) Nafarroako Foru Komunitateko erreferentziako telefonoa: 948 290 290.

6.13. COVID-19RAKO ERREFERENTZIA DIREN PERTSONEK ZERTAN LAGUNDUKO DIOTEN ZUZENDARITZA TALDEARI.

1.- Erredakzio-lanerako laguntza:

- Zuzendaritza taldeari laguntzea ikastetxearen Kontingentzia Protokoloa Hezkuntza Departamentuak emandako protokolo orokorraren oinarrien arabera prestatzen.

2.- Kontrol-lanetarako laguntza gai hauen inguruan:

- Higiene- eta garbitasun-neurrien ezarpena eta jarraipena ziurtatzea.
- Eskuak maiz garbitzea:
 - a) Eskuen garbiketari buruzko infografiaren presentzia ziurtatzea.
 - b) Xaboi likidoaren dosifikatzaileak eta eskuak lehertzeko papera badi-rela ziurtatzea.
 - c) Gel hidroalkoholikoa badela ziurtatzea.
- Kontingentzia protokoloan definitutako eremu arriskutsuetan zabor-poltsez estalitako paperontziak badi-rela ziurtatzea.
- Bereizteko hesi fisikoak ongi jarri direla egiaztatzea: leihatilak, metakrilatozko manparak, gortinak, etab.
- Urruntzearen mugapena betetzen dela ziurtatzea harrera-mahaietan, arreta-leihatiletan eta abarretan.
- Langileen babes-ekipamenduen hornidura ziurtatzea, haien zereginaren arabera.
- Pertsonen joan-etorrien antolaketari eta seinalez markatzeari dagozkien neurriak betetzen direla egiaztatzea (instalazioen sarbideak, joan-etorriak, eta irteerak).
- Egiaztatzea badela espazio itxi bat, komun batetik hurbil, pertsonak aldi baterako bakartzeko soil-soilik erabiliko dena.

3.- Informazioa zabaltzen laguntzea gai hauen inguruan:

- Birusaren hedapena mugatzeko prebentzio-neurriei buruzko informazioa zabaltzea:
 - Kontingentzia Protokoloa eguneratzea eta informazioa zabaltzea, uneko egoeraren arabera.
 - Ikastetxekoak ez diren pertsonen dagozkien segurtasun-neurriei buruzko informazioaren zabalpena ziurtatzea.
 - Informazio eguneratua hezkuntza komunitate osoko kideei iristen zaiela erraztea.
- Ikasgela eta eremu estrategiko guztietan koronabirusaren prebentzioari buruzko infografia ikusgai dagoela bermatzea.

Aurreko zerrendan ageri diren lanetan lagundu ahal izateko, esleitutako langileek izanen dute:

- Eskola-orduak: ikasleen zuzeneko arretan ematen ez diren eskola-orduak.
- Ordu osagarriak: zuzendaritza taldeak beharrezkotzat jotzen dituenak.
- Prestakuntza-orduak: prestakuntzako 35 ordu akreditutako zaizkie. Horretarako, beharrezkoa izanen da zuzendariak erreferentziako pertsonen izen-deiturak ematea Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuari.

6.14. GORPUTZ JARDUERAK ETA ESKULANAK

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Hesi-babeserako neurriak aplikatzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Lokalen eta materialen garbitasuna ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

Xedapen komunak

Ikastetxetik kanpoko kirol-instalazioak erabiliz gero, protokolo honetako betekizunak bete beharko dituzte.

Kirol jarduerak

Behar bezala zainduz gero, posible da kontaktu- eta baloi-jokoetan aritzea edo objektu-trukeak egitea.

Familiei gogorarazi behar zaie Gorputz Hezkuntza dagoen egunetan ikasleek jantzi egokiak jantzita etorri behar dutela etxetik, aldagelen erabilera saihesteko eta ikasleen arteko kontaktuak mugatzeko.

Ahal den guztietan, lehenetsuna eman behar zaie segurtasun-tartea gordetzeko aukera ematen duten kirol-jarduerei.

Haur Hezkuntza etaparen berezitasunak:

Arropa

Familiei eskatu behar zaie umeen jantziak egokiak izatea jantzietako batzuk jantzeko eta erantzeko garaian umeak autonomoak izan daitezen.

Jarduera fisikoa:

Jarduera fisikoak egotea aurreikusten denean, gogorarazi familiei umeen jantziek eroso mugitzeko modukoak izan behar dutela.

Eskulanak:

Ikasle batek baino gehiagok erabiliko dituzten materialak garbitzeko arauak aurreikustea (panpinak, eraikuntza-jostailuak, etab.).

Lehen Hezkuntzako berezitasunak:

Jarduera fisikoa

Gorputz Hezkuntzako saioak asteko egun berean biltzea.

Familiei gogoraztea ikasleek jantzi egokiekin etorri behar dutela etxetik, beren ordutegian Gorputz Hezkuntza dagoela markatuta duten egunetan.

6.15. IRAKASKUNTZA ESPEZIFIKOAK ETA ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA IKASTETXE PUBLIKOETAN

OINARRIZKO IRIZPIDEAK:

Pertsonen arteko tartea gordetzea.

Ikasleen arteko interakzio fisikoak mugatzea.

Lokalen eta materialen garbitasuna ziurtatzea.

Irakatsi, informatu eta komunikatzea.

OINARRIZKO IRIZPIDE HAUEN GAINEAN DEFINITZEN DIRA APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

Ikastetxeak ireki aurretik gogoeta egin behar da irakaskuntza mota horien antolamenduari buruz, dagozkien ikasgelen erabilera zehazteko (musika, plastika, teknologia, informatika, laborategiak, tailer-ikasgelak, etab.), segurtasun-baldintzak bete daitezen.

Ahal den neurrian, ikasgela mota horien eta hango materialen erabilera mugatu behar da, behar-beharrezkoa den kasuetara. Ikasle batek baino gehiagok erabiliko dituzten materialak, tresnak, instrumentuak eta abar garbitzeko arauak zehaztu behar dira.

Lehentasunez teknologia berriak erabiltzea behar diren azalpenak eta adibideak erakusteko.

Material pedagogikoa erabili behar bada, banakako jarduerak antolatzea gomendatzen da, eta ezinezkoa bada, material horren garbiketa aurreikusi behar da.

Ikasgela horiek sakon garbitu beharko dira egunero, erabiltzen badira.

Hezkuntza Departamentuaren mendeko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen sarean ematen diren enplegurako lanbide-prestakuntzako irakaskuntzek hasierako Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako zehazten diren antolakuntza- eta segurtasun-neurri berberak bete beharko dituzte, eta, bereziki, protokolo honetako 6. atalean (antolakuntza- eta segurtasun-neurriak) ezarritakoak.